


Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



Etxarriko eta Bakaikuko udalek parte hartze prozesuengatik aitortza jaso dute / 7

Arakilgo Udalak ibarreko herri bakoitzean desfibriladore bana jarri du / 11

Arbizuko 23. Duatloia jokatu da bihar; 180 duatleta daude izena emanda / 17

Irati Irigoien eta Erkuden Moreno Senior Mailako Nafarroako Taekwondo txapeldunak dira / 20

Laida Aldazek 'Kirolak' ikuskizuna eginen du apirilaren 17an Etxarri Aranatzen / 21

Laura Penagos aktorea Etxarrenen bizi da; bere bizitzan oinarrituta antzezlan bat egin dute / 23



ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

Bultza



Euskalduntzeko, Korrika

Euskaltegiei bultzada ematen dien lasterketaren oihartzunak / 2-4

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Euskara irakasteko gau eskolak besterik ez zeuden hasieran. Haien koordinazio beharraz sortu zen AEK eta arbizuarrak ardura hori zer zen ikasi behar izan zuen, AEK-ren Nafarroako lehendabiziko koordinatzailea izan baitzen.

Noiz hasi zinen gau eskolan?

Ikasketak 1977an bukatu nituen. Arbizura itzuli nintzen eta hortik Iruñera. Lana bilatzeko denbora horretan euskarazko klaseak ematen hasi nintzen, Arturo Kampion euskaltegian. Ez gaur egungoan, lehenengoan. Elkarre bat zegoen, Konpainia kalean-edo, ez naiz oroitzen; kale estu bat eta etxe zahar batean ematen genituen klaseak. Momentu hartan ez zegoen AEK-rik Nafarroan; gau eskola batzuk bazeuden, esaterako, Sakanan, Baztanen, Iruñerrian... Batez ere Bizkaitik eta Gipuzkoatik bultzatuta AEK sortzen hasi zenean, eta Euskal Herrian koordinazio baten beharra ikusi zenean, gu ere hor sartu ginen. Eta, orduan, liberatu gisa lan egitea proposatu zidaten.

Momentu hartan Nafarroan hiruzpalau tokitan zeuden bakarrik gau eskolak. Ikusten genuen behar beharrezkoa euskal kontzientzia, euskara ikastearen kontzientzia sortzea eta euskaldun zaharren alfabetizazioa baita ere. Hor hasi nintzen lanean.

Geroz, Nafarroako AEK-ko lehen arduraduna.

Hala da. Lehenago ez zegoen ez AEKrik ez arduradunik. Ni lanean hasi nintzen eta ikasi behar izan nuen zer zen ardura hori hartzea. Zaila izan zen denbora hura. Pentsa ezazu: Nafarroa osoan kontaktuak hartu behar genituen. Ez nuen autorik ez ezer. Autobusa hartzen



Lurdes Mendinueta Ijorra, lehenengo Korrikako antolatzaileetakoa, lekukoarekin Arbizun lasterka 2017an. ARTXIBOA

"Praktikan teorian baino hobe aterata zen"

LURDES MENDINUETA IJURRA AEK-KO NAFARROAKO LEHEN ARDURADUNA
1980an egin zen lehen Korrika hartan parte hartze zuzena izan zuen arbizuarrak. Orduko euskara klaseak, antolakuntza eta Korrikaren sorrera izan ditu hizpide

nuen eta behin joaten nintzen Sartagudara, beste batean joaten nintzen Lizarrara eta hurrengoan joaten nintzen Errora. Horrela ibili nintzen Nafarroan zehar, jendearekin, kontaktuak hartzen eta begiratzen aukera genuen irakasleak bilatzeko, baita irakasleak bidaltzeko ere. Horretarako denbora asko pasa zen, asko mugitu ginen. Zaila egiten zen.

Hala ere, gauza batzuk lortu genituen. Tuterara joan nintzen eta banekien euskara klaseak ematen ari zirela. Kontaktua eman zidaten adineko emakumezko batena, Karmen Albisu, oker ez banago Oreretakoa zen, eta bere bi alabekin zegoen etxean. Berarekin hitz egiten egon nintzen eta klaseak nola hasi zen ematen esan zidan. Horrela, pixkanaka pixkanaka, koordinazio hori hartzen hasi ginen, jendearekin kontaktuan jartzen eta AEK hedatzen eta osatzen Nafarroan.

Sartagudan ere kontaktu bat lortu genuen. Hitz egitera joan nintzenean ikusi nuen klase klandestinoak ematen zituztela. Esan nien: "baina, nola? Legezkoa da, euskara ikastea eskubide bat da". Baina beraiek herrian egoera horrela bizi zuten eta klandestinioki ibiltzen ziren. Horrela ibili nintzen denbora batez, jendearekin kontaktuan jartzen.

Zerotik AEKren geografia bat osatzen, ezta?

Hori da. Ez genuen dirulaguntzarik ere. Bizkaia-eta pixka bat hobe zeuden. Baina guk ez genuen laguntza handirik. Nafarroako Diputazioak noizbehinka ematen zuen diru pixka bat. Baina gau eskola bakoitzaren izenean ematen zuen. Orduan hasi ginen dena elkar eskatzen, denok AEKren izenean, gau eskola guztien izenak emanez. Diputaziora gure aurre-





Beñi Agirre, Urtsa Errazti eta Lurdes Mendinueta Ijurre lehen Korrikaren akaberan Bilbon. UTZITAKOIA

kontua bidaltzen genuen eta gero beraiek nahi zutena ematen ziguten. Horrela, pixkanaka pixkanaka, osatzen joan ginen. AEK ekonomikoki pixka bat aurrera ateratzeko gau eskola bakoitzak laguntza ematen zuen kutxa batera. Ordura arte, gehien bat, militantziaz egiten genuen lan, dirurik ez zegoelako. Eta handik nire lanpostuaz aparte liberatu batzuk atera genituen. Zarrakaztelun bertan bizi izan zen mutiko euskaldun bat, Jose Labio, han klaseak ematen hasi zena. Beste bi neskatza Erriberara bidali genituen. Sagrario Aleman Andosillan eta eskualde horretan egon zen klaseak ematen. Liberatu genuen jendea eta hasi ginen indartzen eta hasi ginen gure artean, gehien bat, sustengua izaten. Beste herrialdeetako AEK-ko jendearekin harremanetan eta bilerak eta, elkarrekin.

Euskara irakasten edo alfabetatzen, zertan aritzen zineten gehiago?

Eskualdearen arabera. Euskaldun zaharrak baziren, alfabetatuko lirateke. Bestela, euskaldundu. Batzuk zerotik hasita, beste batzuk, berriz, mintzapraktikan. Etxean behar bada, Iruñean guraso batzuekin entzuna zutelako... Kontuan izan behar da baita ere denbora haiekan ez zegoela ez Internet, ez wifi, ez ezer. Komunikazioa zaila egiten zen askotan. Azkenean, auto bat lortu zidaten eta horrekin, pixka bat, erraztu zen.

Orduan zein material zegoen euskara irakasteko?

Bazegoen Euskalduntzen metodoa. Gero laminekin beste metodo bat hasi zen, AEK-k atera zuena. AEK-ko talde teknikoa lanean ibiltzen zen pedagogiakoak eta hori guztia prestatzen. Horrekin ibiltzen ginen. Eta toki askotan ahal zuten moduan, fotokopiekin...

Eta lokalak?

Toki batzuetan laguntza bazegoen eta lortzen zuten lokala izatea. Baina beste toki batzuetan ezer ez. Sartagudan, esaterako, klandestinoki egiten zuten ahal zuten lokal batean, beraiena, ezkutuan. Beste batzuetan baita etxeetan ere egin dira. Eskoletan egiten zen baita ere. Klaseak ahal zen tokian ematen ziren. Ez zen berdina Sakanako egoera edo Erribera edo Lizarraldeko egoera. Toki batzuetan errazago lortzen zuten beste batzuetan baino.

Jendeak pixkanaka AEK-ren berri izanen zuen. Herrietara klaseak ematera joateko deiak jasotzen zenituzten?

Horrela joan ginen egiten. Hasieran behar bada zaila egiten zen irakaslea aurkitzea ere. Baina momentu batzuetan etorri zen jendea Gipuzkoa aldetik, ikasle zeudenak, etortzen ziren. Ni, esaterako, negu batean Irunberri egon nintzen. Deitu zuten eta ez genuen irakaslerik. Iruñeko mutiko batek bazuen neska laguna Irunberrikoa eta harekin

egoteko hara astean bitan joaten zen astean zehar. Ni berarekin joaten nintzen bi talderi klaseak ematen nizekion eta bukatzen nuen, mutikoak bere lagunarekin bukatzean, berarekin Iruñera bueltatzen nintzen.

Andosillan bi apaiz zeuden, oso jatorrak. Haiek deitu zuten norbait bidal genezan hara. Liberatua bidali genuen eta urte batzuetan egon ziren. Pentsatzen dut jarraitu dutela, baina ez dakit nor dagoen eta nola dagoen.

Igandean ekitaldia

22. Korrikak bukatu beharko lukeen garaian 80 herrietan AEK-k ekitaldiak antolatuko ditu. Igandean, 12:00etan, izanen dira ekitaldi horiek eta Sakanako Etxarri Aranatzan egiten da. AEKtik jakinarazi dutenez, "ekitaldi xumea" izanen da. Alde batetik, Itziar Nazabalek koadroa margotuko du, bestetik bertsolariak eta txalapartariak izanen dira. AEK-k bere mezua irakurri ondoren bi kanta abestuko dira: "Euskal Herrian Euskaraz" eta "Lekukoa mingaina" bertso-ropa.

Irakasleen baldintza, materiala, lokalak, baliabideak... Dirua beti faltan, ezta?

Bai. Askotan zaila izan zen. Liberatuak izan arren, askotan hilabete bukaera heltzen zen eta sekula ez genuen kobratzeko. Diputazioko dirulaguntza eta hori guztia heldu arte, nahiko eskas ibiltzen ginen.

Diru premiari erantzuteko sortu zen Korrika. Non izan zenuen haren berri?

Euskal Herriko AEK-ko bilerak egiten genituen, herrialde bakoitzetik arduradun bat joaten zen. Bizkaian Euskal Herriko ekonomia funtsaz arduratzen zena, bazeuden ere talde pedagogikoan zeudenak. Julen Kaltzada Bizkaiaiko zen, baina Euskal Herriko lehen arduraduna bera izan zen. Bilerak egiten genituen. Denak genuen beharra, ez bakarrik diruarena. Diruarena arrazoi handi bat izan zen. Bestalde, ikusten genuen behar beharrezkoa zela gure herria alfabetatzea eta euskalduntzea eta jendeari euskalduntzeko beharra edo kontzientzia sortzea edo berpiztea.

Bilera haietako batean dirua ateratzeko zer egin pentsatzen hasi ginen. Hainbat proposamen egon ziren. Esaterako, pentsatu zen jaialdi erraldoi bat egitea eta dirua lortzea. Baina horrek suposatuko luke toki batean egitea, Euskal Herri guztiko jende guztia joanen litzateke. Azkenean, erreleboen lasterketaren propo-

samena egon zen, gero egin genuena. Nahiz eta egiten zailagoa zela ikusi, ideia askoz ere hobe iruditu zitzaigun, horrela ekingiz hori Euskal Herri osoan hedatzen guelako. Zazpi probintziatik pasatzen zen eta mundu guztiak parte hartzen zuen.

Hori onartu genuen. Eztabaidatu ziren izen batzuk: arineketan, lasterketa, korrika eta beste. Baina Korrika izenarekin gelditu ginen. Eta bilkura batetik etorri, Nafarroan ahal genuen jende gehienarekin bildu, zer nahi genuen azaldu, eta hor hasi ginen pixka bat pentsatzen nola egin, nola antolatu eta nola koordinatu Nafarroa. Ez zen lan erraza.

Korrika egiteko erabakia hartuta. Bileratik autoan bueltan, zer pentsatzen zenuen?

Ufff. Ez dakit sinesten genuen ere nola egingen genukeen edo zer aterako litzatekeen. Ez dizut esanen beldurtuta, baina pixka bat zaila ikusten genuen. Gehien bat Nafarroa, oso handia baita. Gainera, hiru egunez izan zen, luze-luzea. Hori martxan jartzea oso zaila izan zen hasieran. Herri guztietara joaten hasi ginen, jende guztiarekin kontaktuan jartzen. Lehenik azaltzen zer egin nahi genuen, bakoitzari bere lana ematen: herri bakoitzean zenbat km zituzten saltzeko... Eskualdeko antolatuko genuen. Eta herri handiak zirenean, herriko jendea bilatu eta km guztietan jendea egon behar zuen. Batzuetan behar

bada 100 zeuden, beste batzuetan bi bakarrik korrika egiten. Baina denetan norbait egon behar zuen. Hori guztia prestatzeko arduradunak jarri genituen. Nafarroan Patxi Artze gurekin egon zen Korrikan lan egiten.

Ez zen batere erosoia izan. Gero jende, enpresa, taberna eta toki guztietara joan behar km-en eskaintzak egiten eta dirua eskatzen. Konplexua izan zen, ez zen erraza izan, ez.

Herrietan jendeak nola hartzen zuen Korrika egiteko ideia?

Batzuetan barrez. Batzuk ez zuten sinisten ere egiten gurela, edo zerbait aterako zela. Esaten genien: "hemen ezin bada ekarriko dugu jendea beste nonbaitetik, etorriko da norbait korrika egitera. Zuek lasai. Baina lortu behar duguna da km guztiak saltzea eta km guztietan jendeak egon behar du korrika". Ez bilera bat, behin baino gehiagotan egon ginen antolakuntza muntatzeko, dena prest uzteko, programa guztia ikusteko: zer egun eta zein ordutan tokatuko litzatekeen herri bakoitzean. Gero, esaterako, Irunberrietik 24:00etan pasa behar bazuen, jendeak elkartean afaritxoa antolatu zuen, musika eta guzti; denak itxoiten, Korrika noiz helduko. Horrela, ilusioa eta gogoia sortzen joan zen.

Erabakia hartu zenetik Korrika Oñatitik abiatu bitartean zenbat denbora pasa zen?

Ez naiz gogoratzen, baina asko. Niri oso luzea egin zitzaidan. Orain ere sentsazio hori daukat: asko kostatu zitzaigula eta asko ibili ginela.

Garai hartan petoak, kamisetak eta beste salgai zeuden?

Bai, bazegoen materiala; pegatinak eta gauza guztiak, orain bezala. Hori guztia ere saldu behar zen. Herri guztietara eramaten zen. Beti zegoen arduradun bat horren kontrola zuena. Eta herri guztietan berdin-berdin, saltzen joan behar. Lan erraldoia izan zen. Jende askok eta askok parte hartu zuen.

Udazkenean egitea erabaki zenuten. Negu gorriko eguna tokatu zitzaizuen hasierarako.

Elurra ari zuen. Oñatin hasi zen. Satrustegi euskaltzaina Urdiainen hartu genuen eta Oñatira joan ginen. Han, hasieran, herriko etxean egon ginen. Uni-bertsitate paretik hasi zen, uste dut. Zero km-a eskertzeko egin genuen; Satrustegik eta Eli Galdosek egin zuten. Haiek egin



Lurdes Mendinueta Ijorra 1984an. UTZITAKOIA



2017ko Korrikako lekukoa hartuta Arbizon. ARTXIBOA

zuten lehen km-a. Gero Satrustegi berritro etxera eraman genuen, eta Iruñera.

Ondoren, Nafarroan, Korrikaren gainean egotea tokatuko zitzaizun.

Hiru egunetan ez nuen ohea ere hartu. Luzaidetik gora Ibañeta elurrez beteta, portua itxita zegoen. Poliziek eta jendarmeek esaten ziguten ezin zela pasatu, kamioneta ezin zela igo mendatek. Ez genekien zer egin. Auzperriko ezagun batengana joan nintzen. Ez dakit momentu hartan alkatea edo zinegotzia zen. Ez dakit zer zen. Zer gertatzen zen azaldu nion. Elurra kentzeko tresnak, traktore batzuk eta hori guztia zeuden. Hartu, mendatea jaitsi, hartu kamioneta eta mendatean gora. Eta horrela hiru egunez, gelditu gabe. Herri batzuetan behar bada autoan ordu pare bat lotan gelditu, beste norbaitek nire erreleboa hartzen zuten bitartean, antolakuntza ikusteko. Eta, horrela, Nafarroa guztia. Arabara Sakanatik sartu zen, eta hor lasaitu nintzen. **Lasai bai, Etxarrin pasatu zena pasata ere triste?**

Bai, Korrika pasa ondoren ibilgailu batek mutiko bat harrapatu eta hil egin zuen. Oso tristea. **Lekuko barruko mezuarena?**

Lekukoan zerbait sartzeko ideia genuen, eta ez genekien zer sartu. Egun batez Jose Mari Satrustegi euskaltzainarekin egon nintzen. Korrikarena aipatu nion, eta zer asmorekin egin behar genuen, helduak alfabetatze eta euskalduntzeko, dirua ateratzeko, Remigio Mendiburuk lekukoa egin zigula, barruan zuloa zuena eta han zer sartu ez genekiela. Berak esan zidan bazuela Ricardo Arregik Euskaltzaindiari idatzitako karta bat alfabetatzea bultzatzeko eskaerarekin. Hori interesgarria izanen litzatekeela eta nik, perfekto. Proposatu nuen AEKren Euskal Herriko bilkuran eta onartu zuten. Mezu hori sartzeko asmoa izan zen.

Korrika hasieran, Oñatin, ez zen mezua sartu lekukoan. Satrustegik momentuan ez zuen, baina ez zen sartu (gutunaren kopia Donostian txukuntzen ari ziren). Urdiaindik pasatzerako,

"LAN ERRALDOIA IZAN ZEN KORRIKA ANTOLATZEA. JENDE ASKOK ETA ASKOK PARTE HARTU ZUEN"

momentu batean, tapa kendu genion eta bertan sartu zuen Satrustegik mezua, Urdiainen.

Korrika akaberak ere zeresana izan zuen.

Bilboko erakustazoka parean bukatu zen Korrika (San Mames inguruan). Azken km-a AEK-ko herrialdeetako arduradunek egin genuen, bakoitzak 200 metro-edo. Ailegatu ginenean, gora igo eta gure asmoa eskutitza irakurtzea zen. Lekukoa ireki genuenean ikusi genuen mezurik ez zegoela. Moztuta gelditu ginen. AEK bezala bagenuen baita mezu bat idatzia, Euskal Herriari eskertzeko eta aurrera egiteko. Hura irakurri genuen. Baina momentu hartan ez genuen esan mezua galdu zela.

Lehen Korrikaren balorazioa egin zenuten. Teoriatik praktikara aldea egon zen? Zertan?

Praktikan teoriaraino baino hobe ateratu zen. Fuertea izan zen, baina gogo handiarekin hartu genuen eta balorazioa bikaina izan zen, oso-oso ongi ateratu zen. Ilusio handiz eta, gainera, ekonomiko ere ongi ateratu zen. Baina ekonomiaz aparte, herrian sortutako ilusioa, jendeak korrika egiteko zer gogo zituen, nola parte hartzen zuen... Espero genuena baino hobe ateratu zen. Horrek jarraitzeko gogoia eman zigun. Hasieran pentsaezina edo barregarria iruditzen zitzaigun: ez da posible, ez dakit zer... Eta, azkenean, begira nola ateratu zen. Egia da batzuk oso inplikaturik egon ginela, egunak eta egunak eta egunak horretan. Baina mezezi izan zuen. Antolatzen segitzea pentsatu genuen. Hasieran urte eta erdiro egiten zen eta gero bi urtetara pasa zen. Gero nik ez nuen parte hartu. Gaur egun ikaragarriko arrakasta du. Behar bada euskararen alde egiten den ekintza handiena da, jende gehienak parte hartzen duena. Uste dut bikaina izan dela.

Eta, hala ere, helduendako euskarra ikastea ez da doakoa oraindik?

Zoritxarrez horrela da. Euskara ikasteak dohainik izan beharko luke. Eta alfabetatzea berdin. Herri batean bizi gara. Herri horren hizkuntza euskara da, lehena. Nahiz eta gero ofizialtasuna biek izan, bata bestea baino indar gehiago izan, edo zapalduago egon... eskubide bat da. Erakundeek ofizialki euskara lagundu behar dute, Euskal Herria euskalduntzen, gure jendea alfabetatzen.



ASTEKOA

RAF ATXURI

'Altsasu' telesailaren bide motxa

Altsasu telesaila, iazko abenduan pantailaratu zena diskrezio handi samarrean igaro zen hedabide nahiz sare sozialetan; iruzkin gutxi, zeresan sortatxo bat... eta Kataluniara. Ilunak ilun eta zurbilak zurbil, niri neroni gustatu zitzaidan sorkaria; aitor dezadan lantegi zail eta mardula zeukala telesailak Koxkako anabasaran aurre, bitarte, eta ondorena azaltzen, eta hainbeste ertz zorrotz-mingarri dituen historia bat kontatzen.

ETB-1ek garaitu hartan *Hondar ahoak* eta *Alardea* telesailak ere *prime time*-ra ekarri zituen, arrakasta koxkorraz ekarri ere. Aipatu hiru lanekin *Basque noir* tankera garatu du ETBk eta euskarazko fikzioak toki duin bat eskuratu du berriz.

Bada, *Altsasu* telesailak eta berarekin bat EITBk jaso zuten errieta parlamentario bat Gasteizen PP-C's-eko eledunaren partetik polarizatzailea delakoan, egia judiziala errespetatzen ez duelakoan eta gertuko historiaren kontakizuna desitxuratzen duelakoan.

Bada, EITBko zuzendari nagusi Andoni Aldekoak etxearen izen ona eta aurreko zuzendariaren lana defendatu beharrean, amen egin, belaunikatu, otzandu eta aurrerantzean "Euskadiko gizartea polarizatzen duen telesailik" ez dutela emango erantzun zuen. Nork, ordea, erabakitzen du zein programa den

"polarizatzailea" eta zein ez? Superadituen batzorde bat eratuko dute Sabin Etxearen oniritziarekin eta Genovako (barka, PPenea berriko) bedeinkapenarekin? *Segoviako ihesa* edo *Operación Ogro* ikustea izanen dugu ETBn? *Non dago Mikel?* edo *Akelarre* bezalako filmak ikusteko aukera izanen dugu, egia judizialaz beste egin arren eta kontakizun ofiziala itsusitu arren?

Sumingarria, psikotronikoa eta retroinperiala da inkisizio postmodernoak azken hitza edukitzea gizarte polarizazioaren neurria erabakitzerakoan...

Konstituzionalismo erregezaleak esana, aintza zuri Espainia eternala.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Neska* gazteok elkar zainduz, sistema arrakalatuko dugu!

ERRAFAILAK SAKANAN

Azken urteotan Mugimendu Feministak garatutako indarra agerikoa da. Neska* Gazteok Mugimendu Feministaren parte gara eta gure bidea egin dugu gazte izateagatik sufrizten ditugun problematika zehatzak salatuz, gure subjektua artikulatuz eta gorpuztuz eta ukatuak zaizkigun espazioak hartuz. Bizi dugun testuinguru sozialean, mundu mailako krisi anizkoitzak, estatuak eta potentzia ekonomikoek, biolentzian oinarritzen den

sistema heteropatriarkal, kapitalista eta arrazistaren aurpegirik basatiena erakutsi digute: osasun publikoan murrizketak, zaintza lanen feminizazioa lan kargak emakumeon*gan utziz, kontrol soziala eta bortizkeria poliziala normalizatuz, indibidualismoa bultzatuz, gazteon militantzia politikoa kriminalizatuz eta neska* gazteon biziak prekaritate bortitzago batera bultzatu dituzte.

Honen aurrean, elkar zaintza, kolektibotasuna eta gure arteko

saretzea ezinbestekoak dira. Mugimendu Feministaren baitan, inoiz baino antolatuago eta saretuago egon behar dugu emakumeok* eta horrekin batera, neska* gazteok. Biziak sostengatzeko ardurak kolektibizatu behar dira botere harremanak errotik aldatzeko. Badugu lana, badugu zer hausnartu eta aldatu, gure pribilegioak berrikusi beharko ditugu eta gure arteko arrazakeria deseraiki beharko dugu barrutik kanpora begira eragin ahal izateko. Neska* Gazteok antolatze eta borroka feministara batzeko deia luzatzen dugu. Elkartasunez eta zaintzaz, sistema arrakalatuko dugu. Neska* Gazte, batu borroka feministara!

GUTUNA

Aupa Fran,

JEXUX RAZKIN MENDINUETA

Aste bat pasa duk, 12, 13, 14, 15 egunak. Denetarik izan genian. Ostiralean kontzentrazioa, larunbatean Etxarrin, Pirritx eta Porrotx denontzat. Oihan ia 14 urte pasa eta gero aske gelditu zuan, egun zoragarria familia eta bera zorientzeko eta besarkatzeko. Gu biok ere trago batzuk hartzen egon gintuan, Arbizuko guraso eta haurrekin gozaten. Eta ondoren bazkaltzera etorri gintuan.

Larunbatean, manifa ondoren, ezbeharrak jabetu gintuan; latza, gogorra izan huen, ezin sinistu, egunak tristuraz pasa ditugu. Hi gogoratu aldiro begiak malkoak dariola.

Astelehenean batzarra egon huan plazan. Herri osoa etorri huan eta momentu gogorra izan huan, parte hartzen zuenak ezin bukatu hire istorioak, malkoak eta negarra. Bi trikilarik eta abeslariak ere parte hartu ziaten agurrean.

Jende askok hartu zian parte, nik ez nian indarririk ateratzeko eta horregatik idazten diat idazki hau hiretzat eta hire familiaretzat. Maite zaituztegu.

Hik egindako lanari ekingo zioagu. Nik ere bazakat hire gogorapenak. Bat esango diat, bizikletatik erori eta Sandindeitik odola dariola etorri ninduan eguna. Betaurrekoak galdu, eta jaso nian laguntzari esker

Etxarrin zauriak garbitu eta Iruñeara anbulantzian. Nere arreba eta hi agertu zineten hospitalean, ni kamilan etzanda nengoenean. Hurrengo egunean ere agertu hintzen eta eguerdian etorri ginuzkian.

Hirekin zorretan gaudek.

ZUZENKETA

Arantza Flores argi teknikaria elkarrizketatu genuen joan zen astean. Antzerki konpainiekin egiten duen lanean zentratu ginen gehien bat. Baina Bilboko Arriaga antzokiko argi departamentuan ere lan egiten du. Bertan gaur egun bost langile finko daude, tartean Flores bera eta dorrobar bat, eta beste hiru langile lan poltsan daude.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia Mendia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Plazako iturria eta Felipe Gorriti kalea. ARTXIBOA

Udala etxebizitza beharrez galdezka

Inkesta apirilaren 11ra arte erantzun dezakete etxea alokatu, erosi, errentan eman edo saldu nahi dutenek, baita beraien etxebizitzaren energia eraginkortasuna hobetu nahi dutenek ere

UHARTE ARAKIL

Etxebizitzarako sarbide zaila dagoela aitortu du Txomin Uhartete Baleztena alkateak. “Uhartete Arakilen etxebizitza asko eta asko hutsik daude, eta etxebizitzaren merkatua gelditi dago. Eta jendea herrian ezin bada bizi joan egiten da. Etxebizitza horiek merkaturatzeko, saldu edo alokatzeko nahia zein den jakin nahi dugu. Baita energia eraginkortasuna hobetu nahi duenik baden ere”. Alkateak jakinarazi duenez, etxebizitzak zaharberritzeko erraztasunak nola eman aztertzen ari da ere.

Bitartean, uhartearren artean etxebizitza premia zein den jakiteko, Uhartete Arakilgo Udalak galdetegia prestatu du eta herritarrei hura erantzuteko eskatu die. Inkesta www.uhartearakil.com webgunean, udalaren Facebook profilean, Whatsapp taldean edo udaletxean (paperean) eskuratu daiteke. Inkestako galderak etxebizitza bat alokatu edo erosi nahi dutenek bete dezakete. Baita etxebizitzak errentan utzi edo saldu nahi duten jabeek ere.

Bestalde, udalak jakinarazi du gobernuarekin eta Nasuvinsa-

rekin harremanetan dagoela eraikinen energia birgaitzea aztertzeko, hau da, etxebizitzetan beharrezko moldaketak egin eta energia eraginkortasuna nola egin aztertzeko. Horri buruzko informazio gehiago nahi duten etxebizitza jabeek inkestaren bidez jakinarazi diezaioke udalari. Inkestak jaso ondoren, eta uhartearrek interesa azalduz gero, Uhartete Arakilgo Udaleko kideek haiekin bilerak eginen lituzkete.

Inkesta erantzuten duenak zehaztu behar du etxebizitza bila dabilen edo jabea den. Bilatzaileek zehaztu beharko dute etxebizitza alokatu edo erosi nahi duten, zer nolako etxebizitza bilatzen duten, etxebizitza bat zaharberritzeko prest ote leudeken edo beste jabe batzuekin elkarrekin egindako zaharberritze batean parte hartzeko prest leudekeen. Etxejabeek, berriz, honako galderak erantzun beharko dituzte: zer motako etxebizitza duzu? Alokatu edo saldu nahi duzu? Interesatuko litzazuke zure eraikina zaharberritzea edo sustatzailea izatea? Eta, azkenik, interesatuko litzazuke gobernuak etxebizitzaren alokairu politasan sartzea?

COVID-19 gaitzaren kontrako txertaketaren segida

COVID-19 gaitzari aurre egiteko txertaketa kanpainan beste pauso bat emanen zuten Osasunbideak Sakanan astelehenean: Etxarri Aranazko osasun eskualdeko 80 urtetik gorako 353 pertsoneri Pfizer txertoa jarri zieten. Horretarako, Osasunbideak Etxarri Aranazko Euskalerriri frontoia egokitu zuen eta 09:30etik 17:30era bitartean etengabe txertoak ematen

aritu ziren Lakuntza eta Urdiain bitarteko adinduei. Bigarren txertoa apirilaren 12an jasoko dute.

80 urtetik gorako txertaketa Sakanan Altsasuko osasun eskualdean hasi zen martxoaren 12an. 580 altsasurrek, olaztiarrek eta ziordiarrek lehen dosiak jaso zituzten eta bigarrena apirilaren 2an jasoko dute Burunda pilotalekuan. Irurtzungo osasun eskualdeari dagokionez, Arakil eta Arruazu bitarteko adinduek ez digute zehaztu Osasunbidetik.



Sakanan bide morea marraztu zuen Lilasterketak

Herriaren arabera parte hartzaileen kopuruan handitu edo txikitu egiten zen tropel more batek Sakanan zeharkatu zuen atzo. Estreinakoz, Lilasterketa Sakanan guztian barna egin zen. 163 emakumezko eman zuten izena, baina gehiago izan ziren tropel morearekin bat egin zutenak, Sakanako Emakumeak Martxan zioen pankarta ibarraren mutur

batetik bestera eramanez. Pausoz pauso ahizpatasuna eta bestelako gizarte eta ekonomia eredu aldarrikatu zituzten.

Ziorditik Arruazu bitartean segidan egin zen bidea, han bazkaltzeko geldialdia egin ondoren, berriro ekin zioten bideari. Irañetara oinez aritu ziren. Arakil berriz, bizikletan zeharkatu zen. Harik eta Etxeberri parera iritsi arte. Han, atzera ere, Sakanako emakumeen martxa oinezkoa bihurtu zen eta horrela sartu ziren Irurtzungo plazan.



Frontoia estaltzeko lanen lehen fasea.

Frontoia ixteko azken lanak emanen ditu kontzejuak

Zeharreko itxitura egin eta haren azpian dauden aulkiak harriz estaliko dira besteak beste

EGIARRETA

Frontoiari teilatua 2019an jarri zion Egiarretako Kontzejuak. Lanen bigarren fasea aurten egingen da eta, horrela, Egiarretako frontoia guztiz estalita geldituko da. Kontzejuak aurtengo aurreikusitako lanen artean dago frontoiko eskuin paretan itxitura egitea, haizeaz eta euriaz babesteko. Behealdean, segurtasun gardeneko beirak, ia 5 metrora arte, eta, horrela, Satrustegi mendilerroaren ikuspegiarekin gozatzeko aukera izanen da, eta handik teilatutako polikarbonato zelularreko plaka gardena. Gainera, eskuin paretaren azpian dagoen porlanezko habea harriz forratuko da, banku luze bat sortzeko. Azkenik, frontoia eskuin alderantz handituko da, han dagoen egurrezko zutabea bildu eta babesteko. Lanek 39.675,52 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Haiek egiten interesatuek eskaintzak apirilaren 15eko 10:00ak arte aurkez ditzakete.



Bakaikuko eta Etxarriko udal ordezkariak diplomekin Nafarroako Jauregiko lorategian. UTZITAKOA

Parte hartze prozesuengatik aitortza

Etxarri Aranazko Udalaren kasuan aitortza plaza ingurua hobetzeko parte hartze prozesuagatik izan da. Bakaikuko Udalaren kasuan, berriz, herriko hausnarketa estrategikoa egiteko parte hartze prozesuagatik jaso du aitortza

ETXARRI ARANATZ / BAKAIKU

Nafarroa Gobernuak herritarren partaidetzarako jardunbide egokien adibide diren erakundeak saritu zituen astelehenean, "demokrazia parte hartzailea hobetzeko ezagutzak eta tresnak eman dituztenak". 2018 eta 2019 urteetan lau arlotan landutako jardunbide egoki saritu ditu foru administrazioak, tartean Etxarri Aranazko Udala eta Bakaikuko Udala.

Etxarri Aranazko Udalak plazako kioskoa birmoldatzeko asmoarekin sortu zuen parte hartze prozesua. Hala ere, azkenean herri guztiarendako mugikortasun plan bihurtu zen, prozesu parte hartzailea eta ireki baten

bidez. Prozesua planteatutako ekintzak gauzatzearekin bukatu zen. Bestalde, Bakaikuko Udalaren udalerrinari buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko parte hartze prozesuak gobernantza berri bat planteatzen du udalerrierendako, udalbatzaren eta bizilagunen arteko harreman estuan. Auzotarrek egindako 300 ekarpenen ondorioz, hamar jarduerara ildo ezarri dira.

Etxarri Aranatz

Maizek gogorarazi zuen duela hiru urte "parte hartze prozesu zirraragarria ekin" ziotela. "Herritarrei galdetu genien nolako herrigunea nahi zuten. Eta horrek hiru urte eta erdiko prozesu bat

atera zen". Haren bidez "gure eremu berriak zein izanen ziren erabaki genuen, oinezkoentzat jartze eta mugikortasun plan orokor bat egin genuen. Baita plazan kioskoa eta estalopea eraiki ere". Prozesuan parte hartu zutenei eskerrak eman zizkien, "bereziki talde motorreko zortzi boluntarioei, baita egin genituen lau batzarretan parte hartu zuten guztiei, inkesta edo idatzien bidez egindako ekarpenak ere".

Etxarriko alkate ohiak azaldu zuenez, "orduan denok bizi izan genuen zer den elkarlana, zer enpatia, zer den toki desberdinetatik abiatu eta kontsentsu bidez adostasunetara iristea. Ikasgai handia izan zen". Maizek

gaineratu zuenez, "bere burua demokrazia aurreratutzat eta modernotzat duen edozein demokraziak bere herritarren ahotsa zuzenean erdigunean jarri behar du. Bai gurearen moduko prozesu lokaletan, bai beste tamainakoetan ere, esaterako, estrategia plan handiak edota azpiegitura handiak. Eta, jakina, Herriehi ahotsa ematea, Herrien estatus politikoa erabakitzeke eskubideari".

Bakaiku

Galartzak bakaikuar guztiei eman zizkien eskerrak lehenik. Baita Sakanako Garapen Agentziari, Emun enpresari eta Nafarroako Gobernuaren parte hartze sailari ere, "bidelagun izateagatik". Zinegotzi bakaikuarrek esan zuenez, "herri txikiek elkar zaintzen laguntzea errazten duten komunitateak sortzen ditugu. Gainera, gure lurrarekin lotura estua dugu. Errespetatu beharra dago, jasagarritasunean aurrera egiten laguntzen digulako".

Bakaikuko zinegotziak herriko arazoetako batzuk zerrendatu zituen: langabezia, lan prekarietatea edota biztanleriaren gutxitzea eta zahartzea. "Horiek ikusirik, hamar urte barruko Bakaikura iristeko bidea parte hartzearen bidez diseinatu genuen, estrategia plana osatuz". Galartzak esan zuenez, "orain etorkizunerako bidea egitea dagozkigu. Horretan, ez dira faltako zailtasunak, akatsak eta ongi egindakoak. Bidea malkartsua izan arren, ortzi muga eta iparra argi dugunean, aldapak leunagoak direla badakigu".

Parte hartze aktiboan oinarritutako gobernantza eredu berrien alde egin zuen Galartzak. Bakaikuarrek plan estrategikoan erabakitako proiektuak gauzatzeko finantziario ezinbestekoa izanen dela esan zuen zinegotziak Nafarroako Gobernuko ardura-dunen aurrean. "Auzolanean eta elkarrekin etorkizuneko Bakaiku marrazten jarraitzeko konpromisoa" berriki zuen udal ordezkariak.



EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

ZURE LANA EZAGUTZERA EMAN

15.000 PERTSONEK EZAGUTUKO ZAITUZTE

**PUBLIERREPORTAJE,
IRAGARKI, ELKARRIZKETA...**

**NAHI DUZUN MODUAN
LANDUKO DUGU ZURE TXOKO HAU**

**ENKARTEA ERE
AUKERAN DUZU!**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus



Zuntz optikoaren sarea sartuko dute

Etxeetaraino iritsiko den sareak oraindik ez du berehalakoan telekomunikazio zerbitzurik ematen. Aurten sortuko den Sakanako zuntz optikoko sare ireki eta neutrorra lotzean izanen da. Haren lanak udaberrian hasiko dira

ARRUAZU / SAKANA

Arruazuko etxeetara aurki iritsiko da zuntz optikoa. Gorka Ovejero Ganboa alkateak jakinarazi duenez, "guk azpiegiturak prest ditugu eta kablea sartzea besterik ez da falta. Datorrenarako lanak aurreratu ditugu". Abaila kooperatibak egingen du lan hori. Ovejerok azaldu duenez, Nafarroako Gobernuak joan den urtean emandako 16.500 euroko dirulaguntza bideratuko dute herriko telekomunikazio premiak asetzera.

Herriko kaleak berri zirenean argindar sarea lurperatu zen. Horrekin batera, lau hodi jarri ziren lurpean, aurreikusiz haien bidez telekomunikaziorako sareak eta bestelakoak sar zitezkeela. Garaia iritsi da eta Arruazuko Udalak lau hodi horietako bat bera ere ez du erabiliko zuntz optikoa sartzeko, argiteria publikokoa erabiliko du. Alkateak azaldu du erabaki horren zergatia: "lanak egin zirenean Movistarrek hodiak eta arketak jarri zituen, baina udalak pagatu zituen. Hala ere, enpresak beretzat ditu eta zuntz optikoa hortik sartuz gero, edo kanon bat pagatzen zaio edo epaitegian salaketa jarriko luke". Alkateak nabarmendu duenez, udalak enpresari hodiak erabil-



Langilea zuntz optikoko kablea jartzeko lanean. ARTXIBOA

tzeko aukera eman zion, baina ez esklusibotasuna.

Alkateak azaldu duenez, Movistarrek Espainiako Auzitegi Gorenaren aldeko epai bat du, zeinetan esaten den "azpiegitura kontuetan enpresari fede ona aurreuposatzen" zaiola. Ovejerok argi du: "hodi eta arketa horiek, azpiegitura herriarena da, fakturak ditugu. Epaitegira joanen gara. Baina epaia iritsi bitartean, zuntza ezartzeko prozesua ez luzatzeko eta enpresari ez pagatzeko, zuntz optikoa argiteria publikoaren hoditik sar-

tuko dugu. Eta lau hodiak erabili gabe geldituko da". Alkateak, bestetik, jakinarazi duenez, "Movistarrek Etxeberrin eta Arruazun aurten zuntza jartzeko dirulaguntza jaso du. Baina soilik interesatzen bazaio jarriko du".

Sakanako egitasmoa

Zuntz optikoa sartuta ere, arbuazurrek denbora tarte batez duten zerbitzu eskas eta garestiarekin segitu beharko dute. Arruazuko alkatea bera Sakanako Mankomunitatearen Telekomu-

nikazio Batzordeko buru ere bada eta han ibarreko herri txikietara zuntz optikoa iristeko proiektua lantzen ari dira. Ovejerok azaldu duenez, "Aizkorbe eta Etxarri Aranatz arteko sarea aurten jartzeko asmoa dugu. Telekomunikazioan gabezia dugun Arakil, Irañeta eta Arruazuri emanen digu zerbitzua. Baina gainontzeko udalek konexio eskubideak erosiko dituzte, nahi izanez gero udal eraikinak sare horretara lotzeko. Etorkizunean herritarrek ere hara lotzeko aukera izanen dute".

Ovejerok jakinarazi duenez, telekomunikazio azpiegitura horren aurrekontua 400.000 eurokoa da. Eta horietatik 160.000 euro Nafarroako Gobernuak jarriko ditu, Geroa Baik eta EH Bilduk horretarako aurrekontu emendekin bat onartu baitzen. Beste zati bat proiektua garatzen ari den Guifinet fundazioak pagatuko luke, eta gainontzekoa udalek. Proiektua eta lanak bideratzeko Sakanako Garapen Agentziako, Arakilgo Udaleko eta Guifineteko ordezkariak Guzman Garmendia Perez buru den Nafarroako Gobernuko Eraldaketa Digitalerako Zuzendaritza Orokorreko kideekin bildu zen martxoaren 18an.

Lanak udaberrian hasiko dira eta iraila akaberako despedituta egon beharko lukete. Bitartean, egin beharreko lotura batzuk zehazten ari dira. Esaterako, Sakanako Mankomunitateak hondakindegia zuntz optikoarekin hornitu nahi du. Eta Arbizuko kanpinera eramatea aztertzen ari dira (gaur egun satellite bidez ari dira). Ovejerok dio, egin ahala Guifinetek zerbitzua emanen duela, apika agorrilerako egon daitekeela.

Uhartek ibarreko sarea baliatuko du

Toki Azpiegitura Planaren bidez, 2017an, herrietan zuntz optikoa sartzea sustatu zuen Nafarroako Gobernuak. Haren enpresa publiko bat, Nasertic, adar nagusiaz arduratu zen. Uhartek Arakilgo kasuan Adamo enpresa arduratu zen obra egin eta herrian barnako zabalkundea egiteaz. Baina, Txomin Uhartek Baleztena alkateak azaldu duenez, "nahiko eskasa izan zen zabalkundea, bi auzo eta industrialdea zuntz optikorik gabe gelditu zirelako. Baita zuntza eramateko zailtasunak zeuden etxeetaraino ere".

Alkateak azaldu duenez, Uhartek Arakil ere lotuko da Sakanako sarera, baina, "modu jasangarrian. Ez dugu sare bat besteren gainean izatea nahi". Uhartek dio ez dutela zuntz optikoen bikoizketarik nahi herrian: denen artean sare bat osatzea nahi genuke, eta gero telekomunikazio konpainiak beraien artean molda daitezela, bai azpiegiturak partekatuz bai ekonomikoki".

Uhartek gehienak adineko jendea direla gaztigatu du alkateak. "Hainbatek hasieran zuntz optikoaren premia ikusten ez bazuten ere, eskaerak egiten ari dira".

Kontzejuendako diru bikoitza

Arakilgo Udalak ibarreko kontzejuen artean 35.000 euro beharrean 70.000 banatuko ditu 11 kontzejuen artean. Guztiek diru kopuru finko bat jasotzen dute eta populazioaren araberako beste bat. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "herrietan lanak edo bestelako proiektuak egitera animatzeko emanen diegu laguntza".



ARTXIBOA

BIL TOKI
TABERNA • JETETXEA

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Cure terram desfructuam!

948 467 876 · Altsasu

PORTUKO

okidengia

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988





Altsasun bilkurez aparte sinadurak biltzen ari dira zerbitzua hobetzeko. UTZITAKOIA

Lehen arretako osasunaren alde, osasun etxean hitzordua

Asteazkenean, 11:00etan, Irurtzango, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeen parean bilkurak egingen dira

SAKANA

Nafarroako Osasun Plataformak deituta egingen dira kontzentrazioak herrialdean barna. Santos Indurain Orduna kontseilariak Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Komunitarioaren ekintza-plan orokorra aurkeztu zuen hilaren 18an eta oso kritiko dira plataformako kideek: "aurkezpena gutxi zehaztutako asmoen adierazpen hutsa izan zen, eta gutxi zehaztuta zeuden ekintza-edo kudeaketa neurrietan. Ez da onargarria, une honetan, ekarpenei irekitako dokumentu bat proposatzea. Lehen Mailako

Osasun Arretak pairatzen duen okertze larriari irtenbideak emateko unea da!" Plataformako kideek Osasunbideari "norabide aldaketa" eskatu diote: "hitz hutsetan geratu beharrean, ekintzetan eta konpromisoetan islatu behar da: epe laburretan egin beharreko konpromiso zehatzak eta egungo arazo larrienei zuzenean lotutako berehalako neurriak. Eredu integral baterantz aurrera egin behar du, ez bakarrik asistentziarantz. Gehiegi atzeratzen ari gara, neke orokor bat jasaten ari gara eta horrek ondorio larriak ekarri dizkigu".

DUELA 25 URTE...



Ludotekak elkarlanean

Bi ludotekariak irailean hasi ziren elkarlanean, bi herrietan jaialdi bat antolatu asmoz. Haren bidez haurren ahalmenak garatu nahi zituzten: dantza, kanta, sormena (asmakizuna, koreografiak...) eta beste. Aldi berean, neska-mutiko altsasuar eta olaztiarrak elkar ezagutzeko aukera ere bazen. Jaialdia arrakatsua izan zen: 22 taldek parte hartu zuten bi herrietan egindako emanaldietan. Gainera, taldeek zaleak erakarri zituzten, gurasoak.

Torturaren ondorioz 14 pertsona hil dira

Egiari Zor fundazioak 14 euskal herritarren bizitzak aitortzea eta erreparatzea beharrezkoa dela adierazi du, bizikidetzak demokratikoa eraikitzen jarraitu ahal izateko. Torturaren ondorioz hildakoen memoria aldarrikatzeko bidea egin du

SAKANA

Donostiako Antigua auzoan egingen dako lore eskaintza egin zuen herenegun, Egia Jakiteko Esku-bidearen Nazioarteko Egunean. Ekitaldi horrekin torturapean 1961. urtetik gaur egun arte hildako 14 pertsonak gogoan izan zituen. Horretaz aparte, pertsona horien bizitzak memoriaren parte izatea beharrezkoa dela aldarrikatzeko prestatu duen bideoa aurkeztu zuen. Torturaren ondorioz hildako 14 pertsonen artean Antonio Goñi Igoa etxarriarra dago. 1970ean Donostian Burgosko prozesuaren kontrako manifestazio batean parte hartzeagatik atxilotu eta torturatu zuten. Antoniok ezin izan zuen bizi izandako haren karga berekin eraman eta bere buruaz beste egin zuen.

Egiari Zor fundazioko kideek gaztigatu zuten, torturaren ondorioz hildako 14 pertsonak ez dute zegokien aitortza jaso. Gaineratuz, "tortura basati horien guztien erantzuleek, egile materialek eta erakunde erantzuleek zigorgabetasun osoa izaten jarraitzen dute. Eta nahikoa da jada". Ordezkaritza politikoa eta instituzionalek erantzukizun politikoak beren gain ez hartzeko aitzakiak erabiltze dituztela salatu zuten. Donostiako ekitaldian



Donostian torturak hildako 14 pertsonak gogoratzeko ekitaldia. UTZITAKOIA

ziurtatu zuten, "tortura praktika sistematikoa izan da atxilotu eta zentrotan, ondo diseinatutako egitura bati eskerrak. Ez zen, beraz, polizia jakin batzuen kontua izan. Tortura posible egin zuten mediku forentseek, epaileek, abokatuak, komunikabideak, uneko gobernu arduradunek, zenbait alderdi politikoetako buruzagiek..." Egiari Zor fundazioak "etorkizuneko elkarbizitza demokratikoa eraikitzeko heriotza horiek, eskubide urraketa larri horiek aitortzea" exijitu zuten.

Arg(h)itzen

Aixita elkarteak sustatuta, Sakanan torturaren "errealitate lazarriaren dimentsioa" jasoko duen dokumentala egingen dute 2022rako. Izan ere, gutxienez 128 sakandarrek pairatutako 149 tortura kasuren lekukotza jaso dute. Elkarteak torturaren gaia azalertzeko Arg(h)itzen proiektua martxan jarri zuen, eta hura gauzatzeko Internet bidezko finantzaketa kanpaina martxan jarri zuen. Epea despidituta 242 diru ekarpen jaso dituzte, guztira 13.035 euro.

Dinabidekoak Arenan

#OTDChallenge2021 eraldaketa digitaleko topaketa handia hartu zuen Iruñeko Nafarroa Arenak herenegun eta atzo. Nafarroako Industria fundazioak antolatutako topaketan 600 profesional baino gehiagok parte hartu zuten, haietatik %15 Nafarroatik kanpokoak. Dinabide bere azpiegitura eta egitasmoak aurkeztu zituen.



SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

San Martinetik Lizarra kalera pasabidea

Barazkigune eta Pikuberri artean eginen da Irurtzugo Udalak eta Pikuxar elkarteak hala adostu ondoren. Pasabidea, gainera, Barazki Gunearen eta Pikuberri artean sortuko den plaza berrirako sarbideetako bat izanen da

IRURTZUN

Pikuberri elkarte eta tabernaren lanak aurreratuta daude. Eraiki-naz aparte, Lizarra kalearen eta Barazki Gunearen arteko tartean elkartearen jabetza den plaza bat sortuko da, Piku plaza. Elkartek plaza horri erabilera publikoa eman nahi dio. Jendarteari plaza zabaldu aurretik Pikuberri elkarteak eta Irurtzugo Udalak hirigintza hitzarmena sinatu dute, plaza berri horretara oinezkoen sarbide libre errazteko. Horren arabera, Barazki Gunea eta Pikuberri elkartearen artean 3 metro zabal eta 10,9 metro luze izanen dituen arranpa eginen da, arranpak sei koska izanen ditu. Arranpa horren bidez elkartearen eta Barazki Gunearen artean sortuko den plazara joateko aukera izanen da, baita Lizarra kalera ere. Eta alderantziz.

Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "sinatutako hitzarmenarekin herriak plaza bat gehiago izanen du, erabilera publikokoa eta irisgarria Lizarra eta San Martin kaleetatik". Lau urterako hitzarmena sinatu dute aldeek. Akordioan argi gelditu da pasabidea udalak eginen duela, harena izanen dela eta udala arduratuko dela pasabidearen garbiketaz. Elkartek pasabidea egitearen kostuaren erdia pagatuko dio udalari. Piku plaza,



Hitzarmena sinatzen. UTZITAKOIA



berriz, elkartearen jabetza izanen da eta elkartek hara sartzea libre utziko du. Elkartearen ardura izanen da plaza berria baldintza egokietan mantentzea eta pasabidea beti irekita izatea.

Hitzarmenean jaso denez elkartek plazaren erabilera publiko udal zerga batzuk ez ditu ordaindu beharko. Bestalde, Pikuberri elkarteak plazaren erabilera publiko erabilera edo jarduera egiteko. Udalak Piku plazan zerbait egin nahiko balu elkarteari baimena eskatu beharko dio.



Etxarrendarrak frontoian jarritako desfibriladorearen ondoan. ARAKILGO UDALA

Ibarreko herri bakoitzak bere desfibriladorea du

Arakilgo herri guztietan jarri dira eta aurki haiek erabiltzeko prestakuntza ikastaroak emanen dira

ARAKIL


Pertsonaren bati bihotza gelditzen zaionean, bere onera ekartzeko tratamendu azkarra emateko ezinbesteko tresna da desfibriladorea. Horren jakitun, Arakilgo Udalak ibarreko herri bakoitzean desfibriladore bana jarri du. Horretarako, dozena bat desfibriladore erosi ditu.

Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "herri gehienetan kontzeju etxean jarrita daude, eraikin horiek herriaren erdian daudelako". Eta askotan han bertan dagoelako mediku kontsultategia. Alkateak zehaztu duenez, "salbuespena dira, Etxarren, Aranburu frontoiaren kanpoko aldean baita, eta Ithabar, markesinan kokatuta baitago". Olaberriak gaineratu duenez, "desfibriladoreak jarri dituen enpresak herri bakoitzean erabiltzeko ikastaroa antolatuko du, eta herri bakoitzean zortzi per-

tsona joanen dira desfibriladorearen erabilera trebatzera". Alkateak azaldu duenez, 12 desfibriladoreengatik 25.000 euro pagatu dituzte eta erosketak bost urteko mantentzea dakar berarekin.

Desfibriladoreez

Makina horiek pertsona bati bihotza gelditzen zaionean erabiltzen dira. Jakina, larrialdi zerbitzuetara ere hots egin behar da. Tratamendu azkar gisa bihotz-biriketako bizkortze egiteko oinarritzkoa maniobra egin behar dira, eta haiekin batera desfibrilazioa. Hau da, desfibriladorearen bidez gaixo dagoen pertsonari elektrizitate deskarga bat ematea bihotza bere funtzionamendu egokira bueltatzeko. Desfibriladorea eskura izanda, trebatutako pertsonen bihotzkoa izan duten pertsonen %75en bizitza salbatuko lukete.



Koskobiloko bildumako piezetako batzuk. WWW.SCIENCEDIRECT.COM

Koskobilon arkeologia azterketek segida dute

Joan den urtean handik ateratako fosilen bilduma gaur egungo teknikekin berraztertu zituzten eta Pleistozenoko fauna osatzen zuten espezieak identifikatu dituzte: errinozeroak, haitzuloetako lehoiak, lehoinabarrak, Asiako hartz beltza eta abar

OLATZAGUTIA

1940an harrobian egindako leherketa baten ondoren bitan banatutako leize bertikal bat agertu zen, 12 edo 14 metroko sakonera. Han sedimentuak eta fosilak zeuden. Harrobiko kapatazak Maximo Ruiz de Gaona naturalistari han opatutako letagin handi bat bidali zion. Hark harrobiko fosilak berreskuratu zituen. Ordurako leizea sunsutura zegoen eta hainbat garaitako fosilak elkarrekin nahastuta zeuden. Bera aditua ez zenez, Koskobiloko leizetik ateratako fosilak Madrilgo Natur Zientzien Museoko paleontologo Federico Gomez Lluacak sailkatu zituen. Animalien arrastoekin batera suharriak opatu zituzten. Eta ikusi zuten Koskobillon harrizko piezak, puntak, egiteko lan-tegi bat egon zela duela 19.000-21.000 urte (Solutre aldia). Material bilduma gaur egungo teknikekin aztertu zuen Asier Gomez Olivenza EHUko ikerlariak zuzendutako nazioarteko taldeak.

Emaitzak

Ikerketan egindako aurkikuntza nagusiak, Pleistozenoko (700.000 eta 130.000 urte arteko garaia) fauna osatzen zuten espeziak identifikatzeko balio izan du. Horrek, historiaurreko garai honetan Pirinioetako giza okupazioa ulertzeko argia ematen du. Berraztertutako fosilen artean honako animalien arrastoak opatu dituzte: errinozeroa (gutxienez duela 220.000 urtekoa, Erdi Pleistozenoa), haitzuloetako lehoiak, lehoinabarrak, otsoak, hartz (haitzuloetako hartzaren aurrekoa), Asiako hartz beltza, bisonteak, zaldiak, hienak, saguzarrak, basurdeak, zaldiak, orkatzak, orein erraldoiak, orein arruntak, ahuntzak, makakoak,

BATETIK, AZTARNAK EGUNGO TEKNIKEKIN IKERTU DITUZTE, BESTETIK, INDUSKETA EGIN ZEN

kuoiak (txakurren familiako animalia), azkonarrak, erbinudeak, kastoreak, eper zuriak... Identifikazio horiek egitea aurkikuntza handia da ikerlariendako garai hartako aztarnategi gutxi daudelako "mendebaldeko Pirinioetan". Gainera, kontinentearen eta penintsularen arteko "pasabidean" egoteak ere garrantzia ematen dio Koskobilori. Pieza horiek datatzea oso zaila da ikertzaileek ez dutelako estratigrafia, hau da, luraren zein geruzatan opatu zituzten.

Koskobiloko aztarnategiak zeresana ematen segituko du. Joan den mendeko 50. hamarkada hasieran leizeko bi adarretan zegoen lur eta material guztia hondakindegia batean bota zuten. Handik material asko berreskuratu zuten. Baina udan Aranzadi zientzia elkarteko kideak han izan ziren arkeologia indusketa egiten. Jasotakoa aztertzen ariko dira orain. Ziurrenik Koskobiloko aztarnategiak zeresana ematen segituko du.



Azaroaren 28an Madotz eta Astitz arteko bidea egin zuten. ARTXIBOIA

Gasbidea pasatzea nahi ez duten tokiak ezagutzera

Madotz eta Itsasperri arteko mendi ibilaldia egingen dute larunbatean, 09:30etik 13:30era

ARAKIL

Aralar mendian barna, Etxeberri eta Lekunberri artean gasbidea egitea aurreikusia dago. Lan horiek mendiaren hego ekialdean sortuko lituzkeen eraginak ezagutzeko bigarren mendi martxa antolatu du Aralar zain dezagun! Gasbidea hemendik ez! plataformak. Zehazki, larunbateko mendi martxaren ardatza gizakiaren eta naturaren arteko harremanak izanen dira. Hau da, gasbidearen lanekin kaltetuak izan daitezkeen ur baliabideak (akuiferoak, Latasako baltsa, lezeak, iturriak...) eta arkeologia eta etnografia aztarnak (trikuharriak, hezurtegiak, larrainak, bordak, sarria, txondor plazak...) ezagutzeko aukera izanen da. Horren berri, ibilaldian parte hartuko duten biologoak eta historialariak ematen dute.

Gasbidearen proiektua Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa

enpresa publikoak sustatu du. Helburua Lekunberri gasez hornitzea da. Eta horretan ados daude Larraungo eta Arakilgo udalak eta Etxeberriko, Egiarretako eta Etxarrengo kontzejtuak. Batere gustuko ez dutena aukeratutako ibilbidea da, gasbidea Aralar mendian barna eramatea. Gasbidea Plazaola trenbidea zenetik eraman daitekeela uste dute udal eta kontzejuetan, baita plataformak ere. Azken horretako kideen arabera, "indarretan dagoen proposamenaren izapidetzea irregulartasun larriak daude eta ingurumen eragina nabaria da".

Gasbidea nondik pasako litzatekeen bertatik bertara ezagutzeko antolatutako bigarren ibilbidea da larunbatekoa. Azaroaren 29an egin zuten aurrenekoa eta 80 pertsona elkartu ziren eta Madotz eta Astiz arteko bidea egin zuten.

Korrikarik gabeko urtean lasterketa berezia pantailara

Pandemia egoerara egokitutako Korrika prestatu du Festaro ekoiztetxeak eta hura irudietan jaso du, *Korrika, batu dezagun euskaraz* izenburua duen lanean. Ikus-entzunezko horretako Korrika Uhartea Arakilen hasiko da. Lehen pausoak Mikel Navarra kazetari aurkezleak ematen ditu, eta Iruñean bukatuko du ibilbidea. Eta bidean zehar Na-

farroako hainbat tokitatik pasako da. Herri bakoitzean entitate, erakunde, elkarte, ikastola edo bestelako erakundeetako ordezkariak izanen dira Korrikako petoa jantzi eta lekukoa eskutan eramanez duten protagonistak. Altsasuko kasuan GUAIXE fundazioko bi langile izanen dira lekukoa eraman zutenak. Ohi bezala, akaberan, lekukoa zabaldu eta han jasotako mezua irakurriko da. Asteartean, 22:00etan, www.festaro.es webgunean ikusteko aukera izanen da

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

IRURTZUN Musika eskolako klarinete ikasleen entzunaldia. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Hoy es mañana* liburuaren aurkezpena. *Nola eragiten du COVID-19ak gazteengan?*

Hizlaria: Julen Bollain Urbieta. 17:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda: Sexgunea.

18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunea.

ALTSASU Euskaraldiko batzordearen bilera irekia.

Hurrengo ariketa bitartean zer egin aztertuko da.

19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

IRURTZUN Musika eskolako gaita ikasleen entzunaldia. 20:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

LARUNBATA 27

ARAKIL Aralar zaindu dezagun.

Gasbidea hemendik ez! 6 km-tako mendi ibilbidea. 09:30ean, Madotzetik.

IRURTZUN Berdintasunaren aldeko escape room-a Tramankuluak taldearen eskutik.

ZINEMA

ALTSASU

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Non dago Mikel? gaurkotasunezko film dokumentalaren emanaldia
Ostirala 26: 19:00
Igandea 28: 19:30 (Sarrerak agortuta)

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Nuevo orden zineforum filmaren emanaldia
Igandea 28: 19:30

Emakume taldeak antolatuta. 6 euro. Sei laguneko sei txanda. 12 urtetik aurrera. 10:00etatik aurrera, kultur etxean.

ITURMENDI Hitzaldia: Emakume langileriaren auzia. Jarkik antolatuta. 12:30ean, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda: Salting. 13:00etan, bus geltokian.

ARBIZU 23. Arbizuko Duatloia. 15:30ean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontukantari 1 familiarreko ikuskizuna. 3 euro. 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU '!' Aurkezpena. Ondoren, kontzertu akustikoa: Amaiur eta Sarabe; Maddi eta June. 19:00etan, gaztetxeko plazatxoan.

IGANDEA 28

IRURTZUN Berdintasunaren aldeko escape room-a Tramankuluak taldearen eskutik. Emakume taldeak antolatuta. 6 euro. Sei laguneko sei txanda. 12 urtetik aurrera. 10:00etatik aurrera, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL Naturanitzean gozaten: Mendi ibilbidea familia artean, trikuharriak eta euskal mitologia ezagutzeko. 3 edo 4 orduko ibilbide erraza. Euskaraz. 10 euro norbanakoek eta 20 familiek. 10:00etan, autobus geltokian.

ALTSASU *Liburu eremua, eremu libre* erakusketa.

Apirilaren 23ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna aurretik eta igandetan 18:30etik 19:30era, lortia kultur gunean.



OLAZTI *Palestinako emakume errefuxiatuak UNRWA* erakundearen erakusketa birtuala. Martxoaren 22tik 25era. 16:30etik 20:30era, liburutegian.

OLAZTI Echabarri zerrategiaren inguruko erakusketa. Martxoaren 15etik 31ra. 16:30etik 20:30era, liburutegian.



ETXARRI ARANATZ *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* ekitaldia. AEKK antolatuta. 12:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 29

ETXARRI ARANATZ Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 11:00etan, plazan.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Musika eskolako akordeoi eta gitarra ikasleen entzunaldia. 18:30ean, kultur etxean.

ASTEARTEA 30

IRURTZUN Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 11:00etan, plazan.

IRURTZUN Musika eskolako

trikitixa ikasleen entzunaldia. 17:00etan, kultur etxean.

ARBIZU *Album ilustratuak elkarrekin irakurtzen* hitzalditailerra Karla Fernandez de Gamboa Vázquez irakaslearekin. Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 17:30etik 19:00etara, Kattukan.

ASTEAZKENA 31

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU *Osasun etxea zaindu!* elkarretaratzea. 11:00etan, osasun etxeetan.

IRURTZUN Musika eskolako piano ikasleen entzunaldia. 17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Musika eskolako saxofoi eta txirula ikasleen entzunaldia. 18:30ean, kultur etxean.

OHARRA: Datorren asteko GUAIXE astekaria apirilaren 1ean, ostegunean, argitaratuko dugu. Eta hurrengo apirilaren 16an izanen da.

Bazkide Zozketa

MARTXOKO SARIAK

1. SARIA
Tere Navarro Lizasoain (Irurtzun)

2. eta 3. SARIAK
Idoia Martxueta Goikoetxea (Etxarri Aranatz)
Alejo Berastegi Arbizu (Arbizu)
Maite Arruabarrena Lizarraga (Etxarri Aranatz)





DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA



DENBORA PASA ARREN EZIN IZANGO
DUGU ZUREKIN BIZITAKOAN AHATZU
BETI EGONGO ZARA GURE BIHOTZETAN
ZURE KUADRILA

Yeray Lanz Azpilikueta
III. urteurrena
Beti gure bihotzetan, maite zaitugu
Ixaro eta familia

ESKELA



Juli Amillano Urdiain
Udaberria esna utzita
Esan diguzu agur
Lili zuriak
Mila esker izeba

OROIGARRIA



Jesus Marin Gorriti
II. urteurrena
(Uhartea Arakilen hil zen 2019ko martxoaren 27an)



Gure ondotik joan zara, baina, ez gure bihotzetatik

Etxekoak

ESKELA



Juana Elso Berastegi
(Lizarraga Ergoienan hil zen, martxoaren 20ean)

Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da

Etxekoak



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK
ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Liam Maigua Tabi**, martxoaren 9an Irurtzunen
- **Suar Del Olmo Bueno**, martxoaren 19an Irurtzunen

EZKONTZAK

- **Ibai Jimenez Claver eta Saioa Urdiain Inda**, martxoaren 4an Ziordian

HERIOTZAK

- **Juana Elso Berastegi**, martxoaren 20an Lizarragan
- **Maria Pilar Puente Izko**, martxoaren 20an Altsasun
- **Julia Amillano Urdiain**, martxoaren 20an Altsasun
- **Teodora Garzo Villarroel**, martxoaren 23an Olaztin
- **Miguel Lasa Lizarraga**, martxoaren 23an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU
Etxarri Aranatz, Enfermogurutzeko dermioan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tñora.

LEHIAKETA

Sakanako Gozamenez film laburren lehiaketa: Hilaren 14ra arte eman daiteke izena: inbostia-punta@altsasu.net edo 608 617 778. Film laburrak apirilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Maiatzaren 5etik 10era gazteen bozketa egingen da, gogoko lana aukeratzeko. Eta sari banaketa maiatzaren 14an izanen da. Informazio gehiago www.altsasu.eus webgunean. Sakanako Gozamenez eta Altsasuko Udala.

Euskal herriko ikastolen komiki lehiaketaren I. edizioa: Gaia Amaiurko gazteluaren setioa izango da, 14-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bakarka edo taldekako lanak izan daitezke. PDF formatoan aurkeztu behar dira. Lanak entregatzeko azken data apirilaren 30ean, 12:00etan, izango da. Informazio osagarria: <http://www.nafarroa-oinez.eus/nafarroa-oinez.asp?Id-Seccion=8&IdContenido=133> estekan edo ehi-komikilehiaketa@ikastola.eus helbidera idatzi.

ZOKZETA

Elkartasun zokzeta: Ziordia running taldeak Rett sindromea, gaixotasun arraroa, duen San Adriango 6 urteko neska baten aldeko elkartasun zokzeta antolatuta du. Txatelen salmentarekin haren etxeko

komunean aldagailua jarri nahi dute, baita Bearendako propio egokitutako moldea duen aukia erosi nahi dute udarako. 75 sari zozketatuko dira. Txartelak euro batean eros daitezke taldeare sare sozialetako profilen bidez, 620 064 534 telefonoaren bidez (Jose Ramon), Altsasuko JJ tabernan eta Ziordiko Kixkur ile-apaindegian (apirilean).

OHARRA

Uhartea Arakilgo 2021eko egur epaia: Interesa dutenek martxoaren 15etik apirilaren 15a bitarte, 35 euro ordaindu beharko dituzte udalarekin, izena ematekoan eta Udalaren zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte. Loteen esleipena ekainean izanen da.

iragarki@guaxe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Gruporache

Gruporache

www.tanatoriosirache.es



Ezkurdia eta Ladis Galarza ikusgarri aritu ziren igandean Adarragan. JUSTO RODRIGUEZ (LA RIOJA)

Bi jardunaldiren faltan guztia dago airean

PILOTA Aurtengoa aspaldiko Binakako irekiena ari da izaten. Bi jardunaldiren faltan, oraindik ez da inor finalerdietarako sailkatu –Elezkanok eta Zabaletak gaur dute aukera– eta bikote guztiek dute aukera finalerdietarako play-offetarako sailkatzeko

Ez dakigu orain arteko Binakakorik zirrargarrienetakoaren aurrean gauden. Bai, ordea, irekienean. Hasierako ligaxka despeditzeko bi jardunaldiren faltan, oraindik ez da finalerdietara inor sailkatu –sailkapeneko lehen bi bikoteak sailkatuko dira zuzenean finalera– eta parte hartzen ari diren 8 bikoteek dute finalerdietako play-offetarako –sailkapeneko 3. postutik 6. postura– sailkatzeko aukera. Hortaz, hil ala biziko bi asteburu pilotazalaren aurrean gaude.

Binakako hasierako ligaxkako sailkapenari dagokionez, 11 jardunaldi jokatu eta Elezkanok II.a eta Zabaleta dira liderrak (9 puntu). Peña II.a-Albisuren eta Altuna

III.a-Mariezkurrena II.ak 8na puntu dituzte, Olaizola II.a-Rezusta 6 puntu, Urrutikoetxea-Imazek eta Ezkurdia-Ladis Galarzak bosna puntu, Jaka-Martijak lau puntu eta Artola-Aranguren 3 puntu. Hortaz, aukera guztiak zabalik daude.

Zabaletak sailkatzeko gogoa du Elezkanok II.ak eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Imaz izanen dituzte aurkari gaur, ostirala, Urretxun (22:00etan, ETB1). Irabaziz gero, zuzenean finalerdietara sailkatuko litzateke Elezkanok eta Zabaleta, eta fabore ederra egingo lieteke play-off postuetan sailkatzeko borrokan dauden Ezkurdia-Galarzari eta Jaka-

Martijari. Aurreko ostiralean Peña II.aren eta Albisuren kontra galtzetik datoz Elezkanok eta Zabaleta, baina faborito argiak dira. Hala ere, liderrak ez dira fio eta neurketa zaila izango dela ez du inork zalantzan jartzen.

Martija konfiantza berreskuratuta Jakak eta Martijak euren laugarren final jarraitua jokatuko dute. Larunbatean, Lekeition, Artola eta Aranguren izango dituzte aurkari final kutsua duen partidari (17:00etan, ETB1). Bi bikoteendako hil ala biziko partida da, jokoan dagoen puntu ezinbestekoa baita play-offetan sailkatu nahi badute. Jakak eta Martijak azken hiru partidak

irabazi dituzte –larunbatean ikusgarri aritu ziren eta 22 eta 19 irabazi zieten Olaizolari eta Rezustari partida historikoan–, hiltorian egotetik gora egin dute nabarmen eta Tafallako partida inflexio puntua izan zela oso argi dute.

"Beste bikote bat gara. Gure buruan konfiantza izatea ezinbestekoa izan da. Bagenekien gure arazo konponbidea partida bat irabaztea zela, eta Tafallakoa irabazi genuenetik gora egin dugu. Animoan eta konfiantzan sekulako gorakada ekarri zigun garaipen horrek. Orditik ongi aritu gara, baina oraindik bi final ditugu aurretik, irabazi beharreko bi final" nabarmendu zuen Martijak material aukeraketan.

Ezkurdiak ilusioa du

Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Olaizola II.a eta Rezusta izanen dituzte aurkari astelehenean Zumaian (22:30, ETB1). Bi bikoek puntu baten aldea dute eta jokoan dagoen puntu lortu nahi dute, finalerdietako borroka horretan egoteko. Ezkurdia eta Galarza igandean Logroñon sekulako erakustaldia ematek datoz. 11 tantotan utzi zituzten Artola eta Aranguren. Bikote ona osatu zuten, sentsazio onak berreskuratuz zituzten, eta gogotsu daude. "Beste bi final dira geratzen zaizkigunak, zaila dugu, baina ilusioa dugu. Txapelketa bukaera gogorra izango da, tentsio askokoa, baina polita" azaldu du Ezkurdia.

Bukatzeko, igandean Astelenak Altuna III.a-Mariezkurrenaren eta Peña II.a-Albisuren arteko lehia hartuko du (17:00etan, ETB1). Sailkapenaren goi aldean daude bi bikoak, eta iraztea, ez dute besterik buruan.

1. MAILA AUTONOMIKOIA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Infanzones - Lagun Artea **1-2**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Erriberri **14**

8 Lagun Artea **4**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Zirauki - Lagun Artea (*Antzekoa*)

Lakuntzarren lehen garaipena

Infanzonesen kontra jokatu zuen Lagun Arteak eta lakuntzarrak pozik itzuli ziren Obanosetik denboraldiko lehen garaipena lotu eta gero. Mikelek Lagunen lehen gola sartu zuen, Infanzonesek berdindu zuen, baina azken minutuan garaipenaren gola sartu zuen atzera ere Mikelek. Lehen garaipen hau inflexio puntua izango delakoan daude lakuntzarrak eta ea horrela den.

ERREGIONALA GIZONAK

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Arrotxapea - Altsasu **2-1**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1 Gazte Berriak **15**

5 Altsasu **4**

HURRENGO JARDUNALDIAK

IGANDEAN

16:30 Altsasu - Doneztebe (*Doneztebe*)

Punturik gabe

Altsasuk atzeratutako partida jokatu zuen aurreko ostiralean Gazte Berriaren kontra. Lehia borrokatuan, 0 eta 1 galdu zuen talde gorritxoak. Igandean Arrotxapearen kontra aritu ziren altsasuarrak, txukun. Arrotxapea izan zen aurreratu zena, baina atsedendia baino lehen bana berdintzea lortu zuen Javierrek. Bigarren zatian Altsasu saiatu zuen, baina bukaera aldera Arrotxapeak gola sartu zuen eta 3 puntuak lruñean geratu ziren. Igandean Altsasuk Doneztebe hartuko du.

SASKIBALOA CBASK-ek lidergoa lortzea du jokoan Zelandin

Autonomia Arteko 2. Mailan 20. jardunaldia jokatu zen asteburuan eta CBASK-Jatorman taldeari atsedendia jardunaldia zegokion. Sailkapenean Avia Zizur Ardoi taldea da liderra (24 puntu) eta CBASK-Jatorman bigarrena, biak 24na punturekin. Asteburuan 21. jardunaldia jokatuko da eta talde altsasuarrak sailkapenean azkena den Valle de Egües taldea

hartuko du bihar, larunbata, 18:00etan, Zelandi kiroldegian jokatuko den partidari. Lidergoa dago jokoan eta zaleen babesak mesede egingo die.

Bestalde, Nafarroako 2. senior mailako 6. jardunaldian CBASK-Ifuel taldeak 12 punturen aldearekin galdu zuen Berriozarren kontra (59 eta 47). Gazte Berriak da liderra (12 puntu) eta CBASK-Ifuel 6. postuan dago (2 puntu). Igandean Gazte Berriak liderraren kontra jokatuko du Altsasuko taldeak, 12:00etan, Antsoainen.

Miliako txapelkunordeak

ATLETISMOA Nafarroako Miliako Txapelketan (1.609 m), gizonetan Atarratze Rota (4:27) gailendu zitzaion Israel Arbizu etxarriarri (4:28) eta emakumeetan Sara Prados (5:20) sailkatu zen Izaskun Beunza olaztiarraren aurretik (5:22). Nafarroako 10 kilometroko Txapelketan Asier Estarriaga 7. izan zen (33:26) eta Aritz Etxeberriak 35:55-eko denbora egin zuen.



Altsasuko 62. Erramu Trofeoan bilduko dira igandean juniorrak

TXIRRINDULARITZA Altsasu Kirol Elkarteak antolatutako proban Altamira hirutan igoko da, azken biak segidan

Martxoaren 14an junior mailako 35. Udaberri Trofeoa jokatu zen Altsasun, Burunda taldeak antolatuta, eta igandean, martxoaren 28an, atzera ere juniorren bilgune bilakatuko da Altsasu, LXII. Erramu Trofeoa jokatu baita, 62 edizio bete dituen proba bateranoa. Lasterketa Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen duenez, elkartearen egoitzatik aterako da, goizeko 10:30ean. Tropelak 88 kilometro ditu aurretik.

Altamira, azken biak jarraian

Altsasu Kirol Elkarteak txirrindularitza ataleko arduradun Felix Mazkiaraneke aipatu duenez, gutxi gorabehera azkenaldiko ibilbidea izango du probak. Josefina Arregitik Institutu arteko errepidera sartuta, Basomuturren atera eta San Pedrotik Urdiainera helduta atzera ere Altsasura heltzeko zirkuitu hori sarritan errepikatuko da. Horretaz gain, tropela ere Zegamako bidegurutzeraino helduko da, eta Altamira hirutan igoko dute, baina aldaketa nabarmen batekin. "Azkeneko 30 kilometrotan egingo dira Altamirako hiru igorak, eta berrikuntza da azken bi igorak segidan egingo direla, eta

Olaztira jaitsita, txirrindulariek zuzenean joko dute Altsasuko udaletxe parean dagoen helmugaraino" azaldu du Mazkiaraneke. Helmugaratzea 12:40ak aldera izango dela aurreikusten da.

Txoko askoko 200 txirrindulari

Felix Mazkiaraneke gaineratu du Altsasuko probak parte hartze ederra izango duela. "Nafarroako Txirrindularitza Federazioa ari da izena ematea koordinatzen, baina adierazi digutenez, hemen go taldeez gain, Frantziako zenbait talde, Murtziako bat, Valentziako beste bat, Kataluniako bizpahiru, Huescako beste bat eta Sevillako beste bat hurbilduko dira Altsasura. 200 txirrindulari inguru ariko dira, pandemiagatik baimendutako kopuru gehiena, gehiago ezin baita" nabarmendu du.

Aurreko urtean bertan behera geratu zen Erramu Trofeoko 61. edizioa, pandemiagatik. 2019 urteko 60. Erramu Trofeoa Arabarrak taldeko Julen Arriolak irabazi zuen, Unai Aznarrekin (Quesos Albeniz) esprinta jokatu eta gero. Jon Gil lakuntzarra (Lizarte) hirugarren sartu zen, 2 segundora.



MARTIN EARLY

Amateurren podiuma mustu du

TXIRRINDULARITZA Lizarrako Cirilo Zunzarren Memorialean makina bat ihesaldi izan ziren, tartean Iker Mintegirenak (Laboral Kutxa). Azkenean La Tovako Tobias Perryk irabazi zion esprintean Pau Miqueli (Lizarte). Igor Arrieta 3. postuan sartu zen eta mendiko sailkapena irabazi zuen eta Bere taldea, Lizarte, izan zen onena. Gil 49. izan zen, Lasa 74. eta Mintegi 86.



Irteera kronometraturia izan zen. Peio Bergarak 65 urte bete zituen eta bateranoen 3. mailako Nafarroako txapeldunordea izan zen.

Astiz, Garcia eta Moreno Altsasuko Top-Tenean

DUATLOIA Saltokiko Mikel Ibergallartuk eta Inma Pereirok irabazi zuten Altsasuko X. Duatloia. Erreleboetan Eneko Aramendia eta Joseba Galarza iturmendiarrak gailendu ziren eta Silvia Perez bateranoen 2. mailako Nafarroako txapelduna izan zen

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Sakana Triatloi Taldeak antolatutako Altsasuko X. Duatloia, aldi berean Nafarroako Duatloi Txapelketa izan zena, guztiz arrakastatsua izan zen. Pandemiak eskatutako osasun neurriak betetzeko Ibarrea industrialdean jokatu zen, eta antolakuntzak eremu itxi bat prestatu zuen duatlendako. Boxak, trantsizio gunea eta irteera eta helmuga bertan egin ziren. Irteera kronometraturia izan zen, eta beste behin kirola modu seguruan egin daitekeela erakutsi zuen Sakana Triatloi Taldeak.

Probak ikusgarritasun handia izan zuen, duatleta nafarrekin batera goi mailako kirolarietako parte hartu zutelako, Espainiako probetan lehiatzen diren zenbait duatleta tarteko, Nafarroako lizentzia ere badutenak. Horregatik, maila oso handia izan zuen probak. Hotz ikaragarriarekin eta haize gogorra kontra zutela jokatu ziren proba guztiak, goizeko kategoria txikikoak eta

arratsaldeko kadeteen eta juniorren proba, proba absolutua eta erreleboena. Hala ere, makina bat ikusle bildu ziren Ibarrea industrialdean proba zuzenean jarraitzera.

Aurreko mugimenduak

Altsasuko X. Duatloia (5 km -25 km-2,5 km), aldi berean Nafarroako Duatloi Txapelketa zen. Erreleboetakoek proba absolutukoekin batera aritu ziren. Nabarmenezkoa da helmugara lehertuta iritsi zirela guztiak.

Irteera mailakatua izan zen, baina hasieratik atzeman ziren probako oilarrak nor izango ziren: Iker Ortiz de Zarate (Saltoki) - korrikako 5 kilometroko lehen segmentua aurretik egin zuen-,

HOTZ IKARAGARRIA ZEGOELA ETA HAIZE GOGORRA KONTRA JOKATU ZEN ALTSASUKO DUATLOIA

bere taldekide Mikel Ibergallartuk (Saltoki) -25 kilometroko bizikleta segmentuan eraso jo eta gainontzeko guztiak atzean utzi zituen-, Ander Ganzabal (Alusigma) eta gureak, Donibane taldean dabilen Mikel Astiz Erro ihabardarra, eta Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra. Sekulako proba egin zuten guztiak.

Mikel Ibergallartuk guztiekin aurre egin zien bizikleta segmentuan, eta Ibarrea industrialdeko 2,5 kilometroko korrikako zirkuitua bakar bakarrik egin zuen 25 urteko errendimendu altuko triatletak. Ibergallartuk 3 minutu pasa atera zizkion Ganzabali (1:05:00), eta 3 minutu eta erdi luze Ortiz de Zarateri (1:05:28). Miguel Seron (Aranguren) laugarrena sailkatu zen (1:06:13), Nafarroako txapelduna, lehen nafarra izan baitzen, eta Mikel Astiz Nafarroako txapeldunordea izan zen, 5. postuan sailkatu baitzen, Seronetik 2 segundo eskasera (1:06:15). Sergio Garcia de

Eulate 8. sailkatu zen (1:08:20). Bi sakandarrek sekulako lana egin zuten, faboritoen pare ibili ziren eta aurreikusi baino hobe sailkatu ziren, Top-Tenean.

Bergararen 65 urteak

Gainontzeko sakandarrek ere lan bikaina egin zuten. Egun horretan bertan 65 urte bete zituen Sakana Triatloi Taldeko Peio Bergara altsasuarra (1:26:04) beterranoen 3. mailako Nafarroako txapeldunordea izan zen. "Jende gaztearen ondoan lehiatzeak izugarri motibatzen nau. 18 urteko mutiko bat alboan nuela aritu naiz, gustura. Ahal den bitartean, lasterketetan jarraituko dugu" azaldu zuen beterrano altsasuarra.

Silvia Perez txapelduna

Emakumezkoetan Saltokiko Inma Pereiro gailendu zitzaion (1:15:48) bere taldekide Besaide Astobizari (1:16:35) eta Diablillos taldeko Elisa Esterri (1:17:11). Kantabriakoa da Pereiro, baina Bilbon bizi da eta Nafarroan dago federatuta; hortaz, Nafarroako txapelduna izan zen. Korrikako lehen segmentuan Astobiza joan zen aurretik, baina bizikletako tartean Pereirok hartu zuen aurrea, helmugaraino mantendu zuena. Ines Moreno altsasuarra 9. postuan sailkatu zen, Top-Tenean (1:23:09).

Sakana Triatloi Taldeko Silvia Perez (1:33:36) beterranoen 2. mailako txapelduna izan zen, eta

bere taldekide Marta Diego (1:36:20) beterranoen 2. mailako txapeldunordea.

Erreleboen proba Sakanan geratu zen, Eneko Aramendia eta Joseba Galarza iturmendiarrak gailendu baitziren, lan ederra eginda (1:06:41). 49 segundo atera zizkieten Antton Zelaiari eta Jabi Gasanzi (1:07:31). Errelebo mistoetan Juan Claudio eta Inma Sainz nagusitu ziren (1:08:38) eta emakumezkoen bikoetan Sofia Arraras eta Ainhoa Morte (1:34:38).

Kadeteak eta gazteak

Kadeteen eta gazteen mailako probak (2,5 km -12,5 km-1,25 km) Espainiako Duatloi Txapelketarako sailkagarriak ziren. Kadeteetan Aiert Mendioroz gailendu zitzaion Alain Razkin lakuntzarri eta emakumezkoetan Niobe Arregik irabazi zuen. Gazteen mailan Julen Andueza txapeldunaren atzetik sailkatu zen Hegoi Lakuntza altsasuarra; emakumezkoetan Jennifer Lopez-Roso izan zen azkarrena. Alain Razkin eta Hegoi Lakuntzak, beraz, Espainiako Txapelketan aritzeko txartela lortu dute.

Goizean Nafar Kirol Jolasetako benjaminen, kimuen eta haurren mailako probak jokatu ziren eta hor ere maila bikaina eman zuten Sakana Triatloi Taldekoek. Besteak beste, Javier Ramirez de Aldak eta Oihan Anduezak benjaminen eta kimuen lasterketa irabazi zuten.



Mikel Astiz eta Sergio Garcia de Eulate bizikleta segmentuari ekiteko prest.



Silvia Perezen irteera.



Joseba Galarza iturmendiarra.

Sakandarrak

Sakandarrak Altsasuko Duatloian

* Proba absolutua

Gizonak	
1. Mikel Ibergallartu	1:02:54
5. Mikel Astiz	1:06:15
8. Sergio G. De Eulate	1:08:20
29. Iñaki Alvaro	1:12:18
31. Ivan Sobredo	1:12:26
43. Jose Ignacio Mikeo	1:14:35
45. Juan Luis Maiza	1:14:40
65. Isidro Asurabarrena	1:16:48
67. Javier Borrega	1:17:39
75. Jorge Iradi	1:18:46
76. Mikel Lakuntza	1:19:05
94. Mikel Mazkarian	1:22:44
100. Peio Bergara	1:26:04
106. Luis Flores	1:32:27

Emakumeak

1. Inmaculada Pereiro	1:15:48
9. Ines Moreno	1:23:09
18. Silvia Perez	1:33:36
20. Marta Diego	1:36:20

* Erreleboak

Gizonak	
1. Eneko Aramendia / Joseba Galarza	1:06:41
2. Antton Zelai / Jabi Gasanz	1:07:31
13. Tomas Guirado / Jessica Camella	1:19:03
17. Fermin Azkargorta / Jokin Bereziartua	1:33:58

* Gazteak

Gizonak	
1. Julen Andueza	35:05
2. Hegoi Lakuntza	39:15

Emakumeak

1. Jennifer Lopez-Roso	42:13
------------------------	-------

* Kadeteak

Gizonak	
1. Aiert Mendioroz	36:48
3. Alain Razkin	41:54
4. Ekain Imaz	41:58
9. Ekaitz Perez	46:54

Emakumeak

1. Niobe Arregi	43:35
-----------------	-------

* Benjaminak

Gizonak	
1. Javier Ramirez de Alda	
2. Anai Mazkarian	

Emakumeak

1. Iradi Elvira	
-----------------	--

* Kimuak

Gizonak	
1. Oihan Andueza	
4. Aratz Mendoza	
14. Ekaitz Berdud	

Emakumeak

1. Itziar Arrosagarai	
9. Enara Perez	

* Haurrak

Gizonak	
1. Joritz Barberena	
7. Mikel Arrizabalaga	
9. Eneko Razkin	
10. Asier Razkin	

Emakumeak

1. Alaia Etxeberria	
---------------------	--

* Oharra: Sailkapenean ez da duatleten jaioterria jasotzen. Hortaz, gerta daiteke zerrendan sakandarren bat ez agertzea.

Arbizuko Duatloiak Altsasukoari hartuko dio lekukoa

Altsasuri txanda hartuaz, bihar, larunbata, 15:30ean Arbizuko 23. Duatloia jokatu da, Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketa izango dena.

Itxiera perimetrala dela eta, soilik Nafarroako duatletek hartuko dute parte, baita Espainiako Txapelketetan aritzen diren eta Nafarroako lizentzia duten duatletek. Horregatik, Altsasun bezala, maila oso altuko lasterketa espero da.

180 duatleta eta bi distantzia

Guztira 180 duatletek eman dute izena eta bi proba dituzte aukeran. Batetik ohiko proba, Arbizuko Duatloia (8 km korrika -32 km bizikletan-4 km korrika),

Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketa izango dena, eta bestetik Arbizuko Ibilbide Herrikoia (4 km-16 km-2 km), proba nagusiaren distantzia erdia duena. Juniorrek azken honetan parte hartu ahal dute, baina kategoria txikiagoak ezingo dute aurten Arbizun lehiatu. Aurten erreleboen proba ere ez da jokatu.

Olatzea Hotelaren parean eremu itxia prestatu du antolakuntzak, burbuila. Bertan duatletek euren beroketak egingo dituzte, boxak edo trantsizioak egiteko eremua bertan izanen da eta baita irteera eta helmuga eta gainontzeko zerbitzuak. Irteera kronometratuak izango dira: 10



segundoro hiru partaide aterako dira. Jakina, eremu itxi honetan soilik duatletek, antolakuntzako kideak sartu ahal izango dira.

Irteera, trantsizioak eta helmuga izan ezik —eremu

blindatua egingo dira, ez plazan— ibilbidea ia berdina izango da, aurreko urteetakoak. Aldaketa bakarra izanen da txirindularitza segmentuko bigarren buelta Baxerri aldetik San Juan ermitarantz egin beharrean, plazatik pasako dela. Ikusleek ibilbideko edozein eremutan egoteko aukera izango dute burbuila izan ezik. Jakina, euren arteko distantziak mantendu beharko dituzte.

Arbizuko Duatloia proba exigentea da, tartean bizikleta segmentuan Lizarragako portua igo behar delako eta haizeak jotzen badu, oso gogorra egiten delako. Arbizuko Duatloian inoiz ezin izan da raftinga egin, hau da, aurreko bizikletari lotuta joan, baina aurten are gutxiago, pandemia dela eta.

Pilotajauku: orain erremontea

PILOTA Pilotajauku Pilota Elkartek 25 urte bete ditu, gizonen pilotaren taldeaz gain emakumezkoen pilota taldea eta pala taldea sortu ditu, eta datorren ikasturterako erremonte taldea sortzea da asmoa

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iaz 25 urte bete ziren Altsasuko Pilotajauku Kirol Elkartea ofizialki sortu zenetik, nahiz eta aurretik lanean egon. Jakina, pandemiagatik ezin izan zuten urteurrena behar bezala ospatu.

Azkenaldian gora egin du taldeak. Gizonen pilotaren gain, emakumezkoen pilota taldea sortu zuen klubak duela bizpahiru urte, baita pala taldea ere, eta datorren ikasturtean, ekimenak arrakasta badu, erremonte taldea sortu nahiko luke Pilotajaukuk. 2020ko ilbeltzean hasi zen lanean egungo junta. Imanol Carabias da lehendakaria, Eider Garde idazkaria, David Medina diruzaina eta Jose Manuel Lizarraga, Gaizka Bakaikoa eta Esteban Lanza daude bokalen artean.

Emakumezkoen taldeak 3 urte

Eider Garde, idazkari izateaz gain, Pilotajaukuko emakumeen sekzioko arduraduna da. Aurtengo nesken taldearen 3. urtea dela azaldu du. "Neskak betidanik aritu izan dira Pilotajaukun, baina mutilekin batera entrenatzen zuten, ez zuten talde propioirik. Agian benjaminen kategorietan alde ez da horren nabaria, baina kimuen mailan desberdintasunak daude indarrean, pilota motan, neskek pilota goxuarekin jokatzen baitute... Duela 3 urte neska dezentek eman zuten ize-na pilota eskolan, asko adin berekoak, Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketan aritzetik animatuta, eta taldea sortzeko kopurua zegoenez, Pilotajaukun emakumezkoen taldea sortu zen" azaldu du Gardek.

Egun Pilotajaukuko emakumezkoen esku pilota taldean 7 pilotari haurren mailakoak dira, beste bat kadete mailakoa eta gero juniorren eta seniorren tal-

dea dago, lau zapabost pilotaririk. 16 urtera arte (kadeteak), udalak eskaintzen ditu kirol eskolak, herriko kirol klubekin elkarlanean. Udalak egiten du udal kirol eskolen deialdia, udalak ordaintzen ditu monitorea eta azpiegiturak, eta kirol klubaren esku dago gainontzeko kudeaketa. Baina 16 urtetik gorako taldeen ardura, kudeaketa eta gastua kirol klub bakoitzarena da.

Emakumezkoen pilota eskolako entrenatzailea Sonia Alonso altsasuarra da, aldi berean Pilotajaukuko senior taldeko pilotaria dena eta aurtengo txapelketa handia, Nafarroako 2. mailako Buruz Buruko eta Binakako Txapelketak irabazi baititu, azken hau Pilotajaukuko Udane Vergarekin. Sonia Alonsok bi urte daramatza Altsasuko nesken pilota eskolako entrenatzaile. Bestalde, bi astetan behin Andrea Lusarreta pilotaria etortzen da eskolako neskekin teknifikazioa lantzerako. "Andrea pilotari eta palista ezaguna da, pilotako modalitate guztiak ezagutzen ditu. Nafarroako Pilota Federazioak ikastetxeetan pilotaren promozioa egiteko kanpainan parte hartu izan du, eta tartean Iñigo Aritza ikastolan eta Altsasuko Institutuan izan zen soin heziketako klaseetan pilota modalitateak ezagutarazten eta sustatzen" aipatu du Eiderrek. Halaber, Lusarreta emakumezkoen Pilotajauku junior eta seniorren taldeko entrenatzailea ere bada. Hamabostean behin etortzen da, ostiraletan, bi orduz. Gainontzeko ostiraletan nagusiek euren kabuz entrenatzen dute.

Pala taldea sortuta eta martxan Emakumezkoen pilota sekzioa sortzearekin batera, pala sekzioa sortu zen Pilotajaukun. "Hiru

urte inguru daramatzagu. Pala eskaintza emakumezkoen pilota eskaintzarekin batera ateratu zen, Altsasuko udal kirol eskolen eskaintzan. Egia esan, palak emakumeengan interes gehiago piztu du gizonengan baino. Egun 14 palista inguru daude. Talde baterako kopuru handiegia denez, Altsasuko Udalarekin adostuta aurtengo bi taldetan ariko dira. Kimuen eta haurren mailakoak dira gehienak, eta kadeteren bat ere badago" azaldu du Eider Gardek. Entrenatzailea Etxarri Aranzoko Gure Pilota Elkarteko Olaia Izagirre arbuzuarra da.

Mutilen taldea

Pilotajaukun 45 mutil inguru trebatzen dira, esku pilotan eta palan dabilzanak kontuan hartuta. Emakumezkoak 22 inguru dira. Guztira 67 federazio fitxa ditu Pilotajaukuk. Aimar Araña

GUZTIRA 67 FEDERAZIO FITXA DITU PILOTAJAUKUK; 45 MUTILENAK ETA 22 NESKENAK

EMAKUMEZKOEN PILOTA TALDEAK ETA PALA TALDEAK 3 URTE DARAMATZATE LANEAN

REMONTA EUSKAL JAI BERRI FUNDAZIOAK ALTSASUN ERREMONTE ESKAINTZA EGITEA PROPOSATU DIE



Pilotajaukuko esku pilotako emakumeen taldeko entrenamendu bat, haurren eta kadeteen mailak.

etxarriarra eta Mikel Arellano altsasuarra dira esku pilotako mutilen taldeko entrenatzaileak. Gardek dio gizonen pilotaren emakumezkoetan baino lehiakortasun handiagoa dagoela. "Emakumezko gutxiago daudenez, euren txapelketak 6-7 jardunaldi izaten dituzte; gizonen pilotaren, aldiz, 20 jardunaldikoak izan daitezke. Hortaz, gizonen pilotaren finalerara maila oso ona duten pilotariak iristen dira, eta lehiakortasuna handiagoa da. Emakumezkoetan, aldiz, maila paretsuagoa da" dio idazkariak.

Gehienak pilota eskolakoak dira, eta talde polita da. Arazoa kadeteen mailara iristen direnean sortzen da, 15-16 urterekin, adinarenatik. "Adin bat iristen da aurrera jarraitzeko kirola oso gustukoa izan behar duzula, konpromisoa eskatzen duelako. Gurean orain badago taldetxo bat oso motibatuta dagoena, baina horrenbesteko motibaziorik ez duten pilotariak ere badaude" azaldu du Gardek. Horregatik, Pilotajaukun argi duten zein den helburua. "Udal pilota eskola bukatzen denean, 16 urtetik aurrera, jarraitu nahi duten horri eskaintza egin ahal izatea. Horretarako, jarraitu nahi duten pilotariak egon behar dira, konpromisoa hartuko dutenak. Izan ere, DBH 3. eta 4. mailako adinetan gauzak zailtzen dira. Batzuk kanpora doaz ikastera, eta gauza bat eta beste dela, askok utzi egiten dute" gaineratzen du.

Gogotsu

Nolanahi ere, bai neskek bai mutilak, gogoz daudela uste du



Pilotajaukuko pala taldeko palistak, agurra egiten. Olaia Izagirre.



Mutilen esku pilotako entrenamendu bat. Aimar Araña.



oa. PILOTAJAJUKU



aia Izagirre da euren entrenatzailea. PILOTAJAJUKU



a eta Mikel Arellano dira entrenatzaileak. PILOTAJAJUKU

Gardek. "Nik uste dut gogotsu daudela. Pilotariak egonkortzea nahi dugu: bai neskak eta bai mutilak, bai pilotariak eta baita palistak ere. Eta hori zaila da. Aurten emakumezkoen taldearen aldeko apustua egin dugu, emakumezkoetan juniorrak eta seniorrak genituelako. Ildo honetan, motibagarria da Sonia Alonso gure entrenatzailea eta jokalaria Nafarroako txapelduna izatea; horrek ere gaztetxoak motibatu egiten ditu. Ea atzetik datozenadako erreferente bihurtzen den. Aldiz, gizonezkoetan momentuz kadeteetatik goragoko mutilik ez dugu, baina ea denborarekin juniorren eta seniorren taldea sortzea lortzen dugun" nabarmendu du idazkariak.

Emakumezkoen junior eta senior mailako entrenamenduak ostiral arratsaldetan jarri dituzte, kanpoan ikasten ari direnak etortzeko aukera izan dezaten. "Junior mailatik goragoko talde nagusia sortzea apustu handia izan da, klubak aurrekontu guztiari aurre egin behar diolako. Une honetan palista junior bat dugu, eta aztertu beharko dugu zer nolako eskaintza mota egiteko gai garen, atzetik kadete mailako palista ere etortzen direlako. Baina ahalegin ekonomikoaz gain, Burunda pilotalekuaren erabilgarritasunaren arazoa dago, pilota eta pala eskolekin ia ordu gehienak beteta baitaude. Aztertzeko gaiak dira guztiak" gaineratu du Gardek.

Erremontearen aldeko apustua

Aurrekoak gutxi ez balira, no-bedade gehiago izango dira Pilotajajukun. Remonte Euskal Jai Berri Fundazioak erremonte eskolak sustatu nahi ditu, horietako bat Altsasun, eta Eider Gardek fundazioarekin hartu emantetan daudela baieztatu du. "Fundazioko kudeatzaile Jaime Arregirekin elkartu ginen eta eurek Altsasun erremonte eskola sortzeko proposamena luzatu ziguten. Hasiara batean proposamena zen Pilotajajukuk 16 urtetik gorakoendako eskaintza egitea. Erremontea sustatu nahi dute, oso jende gutxik jokatzeko eta erremontista asko berehala, 18-20 urterekin, egiten dira profesional. Eskaintza oso interesgarria iruditzen zaigu. Erremontea esku pilotaren teknika berdina du, baina eskuak ez dira mintzen. Kasu askotan pilotariak eskuko minarekin hasten dire-

nean uzten dute pilota, eta eskuera izanik, erremontearekin pilota munduan jarraitzeko aukera izango lukete. Aukera oso polita iruditzen zaigu. Fundazioak bere gain hartuko luke materiala zein monitorean kontratazioa eta guk gazteak, erremontean interesa dutenak, lotu beharko genituzke. Baina proposamena zabaldu da. Badakigu Remonte Euskal Jai Berri Fundazioa Altsasuko Udalarekin hitz egiten ari dela erremontea eskaintza ere udal kirol jardueren barnean eskaini ahal izateko" azaldu du Eider Gardek.

Burunda pilotalekuaren berritze lanak mustutzeko, erremontea jaialdia antolatu zuen Remonte Euskal Jai Berri erremontea sustatzeko bide horretan. "Jaialdi polita izan zen. Izan ere erremontea kirol ikusgarria da, frontoi osoa hartzen duena, ikusteko ere oso polita" dio Gardek. Bestalde, ez da ahaztu behar Altsasun erremontea tradizio handia duela. Altsasun sortu zen, esaterako, Kike Elizalde erremontista handia, eta beste hainbat erremontista ezagun Goikoetxea, Urretarazu, Zubelzu eta Carlos Plazabona, esaterako.

Sakana guztiarendako

Pilotajajukurendako "oso interesgarria" litzateke Altsasun erremontea eskaini ahal izatea, bai udal kirol eskoletan eta baita Pilotajajukuk 16 urtetik gorakoendako erremontea taldea sor-

"HELBURUA ZEIN DEN ARGI DUGU: 16 URTEREKIN JARRAITU NAHI DUTENEI ESKAINTZA EGITEA"

"ESKUKO MINAGATIK PILOTA UZTEN DUTENEN DAKO ERREMONTA AUKERA EDERRA DA"

"TALDEA EGONKORTU NAHI DUGU; APUSTU HANDIA EGIN DU KLUBAK" EIDER GARDE

tzeta, taldea sortzeko nahikoa interesa sortzen bada. "Gu mugitzen ari gara; ea taldetxoak ateratzerik dugun. Eta ildo honetan emakumezkoak ere animatu nahi ditugu; gure pilotariren batek erremontea ikasteko interesa azaldu du" aipatu du Gardek.

Ildo honetan, ez soilik altsasuarrei, erremontea eskaintza Sakana guztiari helarazi nahi diote. "Pilotajajukutik erremontea eskaintza Sakanako beste herrietara ere zabaldu nahiko genuke. Sakanan ez dakit zer gertatzen zaigun, baina herri guztiek zerbitzu guztiak izan nahi dituzte eta hori ezinezkoa da. Ikuspegia aldatu behar dugu, bailaran pentsatzen hasi. Sakanako Mankomunitatearekin ere bildu gara, Pilotajajukuko emakumezkoen pilota taldearen eskaintza ere Sakana guztira zabaltzeko. Sakanako edozein herritako neskak lasai asko etorri ahal dira Pilotajajukura pilotan aritu nahi badute, eta beste pilota klub batetakoak badira, euren klubeko jatorrizko fitxa mantenduko lukete. Beraz, erremontean eta emakumezkoen pilota taldean sakandar guztiek dute tokia" nabarmendu du.

Pilotajajukuk oraindik ez du Remonte Euskal Jai Berrirekin behin betiko akordioa sinatu, eta oraindik lotu beharreko erabakiak daude. Ez dakite, esaterako, erremontea taldea ateratzeko zenbat pertsona eman behar duten izena eta beste hainbat xehetasun, baina datorren denboraldiari begira erremontea eskaintzeko asmoa dagoela esan daiteke. Eider Gardek aitortu du "izugarri gustatuko litzaiokeela emakumezkoen erremontea taldea ateratzea". Pilotaren munduan geroz eta emakumezko gehiago daude, baina berdintasuna lortzeko asko dago oraindik egiteko. "Pilota historikoki maskulinizatua den kirola da, eta hainbat gauza oso errotuta daude, oso zailak dira aldatzen. Borroka bikoitza da emakumeondako. Dena den, belaunaldi berria geroz, beste ikuspegi batekin, gauzak aldatzeko asmoz, bidea egiten. Nafarroako Euskal Pilota Federazioan Javier Conderen taldeak irabazi zituen berriki hauteskundeak eta federazioan oraindik ez dago emakumezkoen talde edo sekziarik, baina prestutasuna azaldu dute eta ea aldaketa gehiago etortzen diren" espero du Gardek.



Bargagain Taekwondo Taldeko lehiaketa taldeko kideak, larunbateko entrenamenduan. BARGAGAIN

Bargagaingo txapelkunak

TAEKWONDOA Irati Irigoienek eta Erkuden Morenok Senior Mailako Nafarroako Taekwondo txapelketa irabazi zuten. Bargagain taldeko euren taldekide Aaron Rodriguezek eta Mohamed Essobaik bronzeko domina lortu zuten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Taekwondo txapelketak hasiak dira, eta horrek guztiz motibatu ditu Bargagain Taekwondo Taldeko neska-mutilak. Taldeko entrenatzaile Gerardo Montero Riverak aipatu duenez, aurtur neska-mutil gutxiagok eman du izena. "Dagoen egoera kontuan hartuta, normala da. Kirol gehienetan gertatu da hau. Aipatu digutenez, eskola adinean dauden neska-mutilen kirol hautaketak %40an egin du behera Altsasan. Ea gutxika egoera honetatik ateratzen garen" azaldu du.

60 ikasle

60 ikasle inguru trebatzen dira aurtur Bargagain Taekwondo taldean, eta horietatik 15 lehiaketa edo txapelketa taldean daude. Osasun neurriak beteaz, talde txikiagoetan ari dira lanean. "Taldea handietan lan egitea

gustuko dut, talde handitan sortzen den zalaparta hori, klaseak arinagoak direlako. Baina egoerara moldatu beharra dago. Nafarroako Gobernutik eskatutako arauetara moldatzea ez zaigu gehiegi kostatu, urte asko gero ramatzalako Osasunbideak eskatzen zizkigun arauak jarraitzen. Eta gure kirolak berak sustatzen dituen baloreak asko laguntzen digute" gaineratu du Monterok.

Konfinamenduaren eragina

Konfinamenduak eragina izan duela ezin daiteke ukatu. Martxan daude eta hori da garrantzitsue-

"IRATI ETA ERKUDEN ADIN TXIKIKOAK DIRA; SENIOR MAILAN IRABAZTEA ITZELA DA" GERARDO MONTERO

na, taekwondo kontaktu kirola dela kontuan hartuta, are gehiago. "Nafarroako Taekwondo Federazioak sekulako lana egin du lehiaketak eta txapelketak bueltatzeko, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean. Horrek nolabaiteko "normaltasun" batekin hasiera hartu gaitu; lehiaketa ari gara eta gauzak ongi egiten ari gara" ondorioztatu du.

Duela lauzpabost aste barru hasi ziren taekwondoko txapelketak, hasiera mailakatuak. Senior mailako konbateak hasi ziren lehenik eta behin. Ildo honetan, txapelketetarako protokoloa zorrotzagoa da. Klubek banatuta egiten dituzte beroketa lanak, eta tatamira sartu eta ateratzeko moduak egokitu behar izan dituzte. Kontaktuzko kirola denez, konbateak eta borrokak maskara jantzita egin behar dira. Baina eska-mutikoak egokitzen

ari direla nabarmendu du Gerardo Monterok.

Lehiaketan aritzen den taldea aurreko urteko ekainetik entrenatzen aritu da, baina lehen fasean, ekaina eta urria bitartean, ezin zuten elkarren artean kontakturik izan. "Azarotik aurrera hasi ginen taekwondoak berezkoa duen kontaktua eta konbateak lantzen, baina finean ia urte bat eman dugu txapelketarik gabe eta badaude gauza batzuk, nahiz eta asko entrenatu, berreskuratzea kosta egiten direnak. Lehiaketa mailak, orohar, zertxobait behera egin du, baina ez gure taldean soilik, orokorrean baizik. Fisikoki ongi egon zaitezke, baina kirolak duen alde taktikoa ez da behar bezala landu eta garatu. Gure lehiakortasuna berreskuratzeke lehiaketa errutina bat izatea beharrezkoa dugu, hilabete edo hilabete eta erdiro lehiaketaren bat izatea, eta ez soilik Nafarroan. Irteerak egin izan ditugu, baina aurtur ezinezkoa da. Ea apirillean Alacanten jokatuko den Espainiako Txapelketan aritzeko aukera dugun. Baina, egia esan, zaila ikusten dut" aitortu du entrenatzaileak.

Nafarroako txapelkunak

Otsailaren bukaeran jokatutako Senior Mailako Nafarroako Taekwondo Txapelketatik lau domina ekarri zituen Bargagain Taekwondo taldeak, lau taekwondolari zirela eta bakoitzak domina bana lortu zuela kontuan izanda, emaitza bikaina. Aaron Rodriguezek eta Mohamed Essobaik bronzeko domina bana lortu zuten, Aaron 58-68 kilo arteko gizonetako eta Mohamedek 58 kilo azpikoetan, eta Irati Irigoienek eta Erkuden Morenok urrezko domina bana, Iratik 57-67 kilo arteko emakumezkoetan eta Erkudenek 49 kilo azpikoetan.

Beraz, Nafarroako txapelkunak ditugu Irati Irigoien eta Erkuden Moreno, Irigoien bigarrenen -2019an irabazi zuen lehen aldiz-, eta Moreno lehenengoz. "Emakumezkoen taldeak denbora gehiago darama emaitza onak lortzen eta taldea errotzen ari da. 14-15 urte zizutzenetik seku-

"EPE LUZERA BORROKALARI ONAK IZATEKO TREBATZEN DITUGU" GERARDO MONTERO

Kadeteen Txapelketa

Bihar, martxoak 27, larunbata, Kadeteen Mailako Nafarroako Taekwondo Txapelketa jokatuko da. Bargagain Taekwondo Taldeko 6 borrokalarik parte hartuko dute. Emakumezkoetan Leire Etxaniz, Aiala Dorronsoro eta Rania Mabchour ariko dira - Rania 2019an Espainiako txapelkunordea izan zen haurren mailan-, eta gizonetakoetan Joseba San Miguel, Hugo Rodriguez eta Aiman Sbai. Ea esperientziarekin gozatu eta lan ona egiten duten.

lako maila ematen ari dira eta Nafarroako txapelketa garrantzitsuena irabaztea handia da beraiendako. Irati eta Erkuden Nafarroako selekzioko kideak dira, eta Irati teknifikazio programan dago. Besteak beste, 2018an Espainiako junior mailako txapelkunordea izan zen eta gero 21 urtez azpiko bronzeko domina lortu zuen, eta duen mailarengatik jaso du beka. Iruñean dago ikasketak egiten eta taekwondoan trebatzen" azaldu du Monterok, pozik.

Mutilak orain hasi dira gora egiten. "Kontuan hartu behar da gure lau seniorrek, mutilak eta neskek, adinez txikikoak direla eta, hortaz, senior mailan dominak lortzea itzela dela. Iratik 17 urte ditu, Erkudenek 15, gainontzeok ere adin horretan daude... eta hiruzpalau urte barru zentratu beharrela txapelketan halako emaitzak lortzea handia da" aitortu du Monterok.

Epe luzera

Gerardo Monterok epe luzera egiten du lan. "Epe luzean borrokalarik onak izateko trebatzen ditut. Haur mailan, kadeteetan... emaitzak lortzen hasten dira eta hor daude, baina garrantzitsue- na etorkizunean borrokalarik onak izatea da, junior, senior edo 21 urtez azpikoetan mailan trebe izan daitezen. Bestalde, emaitza onak izanez gero kirol beka bat lortu daiteke eta hori sekulako pizgarria da" nabarmendu du.



Laida Aldaz Arrieta etxarriarrak 'Kirolak' ikuskizuna egiten du Etxarri Aranatzan. UTZITAKOA

Dantzariaren natura

Laida Aldaz Arrieta artista etxarriarra lehenengo aldiz herrian ariko da. Helena Lizarirekin sortutako 'Kirolak' ikuskizuna eskainiko du apirilaren 17an, 19:00etan, kultur etxean. Dantza garaikidearen bidez herri kirolak aztertu dituzte

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ Duela hogeit hamar urte inguru Laida Aldaz Arrieta kanpora joan zen. Bost urte zituenetik dantzatzan du, eta Etxarri Aranatzko plaza "mitikoan" kalejirak eta jotak dantzatu dituen arren, profesionalki ez da inoiz aritu herrian, etxean. "Ilusio pila bat egiten dit". Apirilaren 17an *Kirolak* ikuskizuna aurkeztuko du, 19:00etan, kultur etxean. Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuituaren programaren barruan egoen da *Kirolak* ikuskizuna herrialdeko sei herritan. Dantzaria ez ezik, Aldaz diziplina antzeko artista da, eta herrira itzultzeko lan handia egin du; baita Nafarroan dantza garaikidea bultzatzeko ere. Duela bi urte Faktoria koreografia zentroa mustu zuen Noainen eta zuzentzen duen Zinetika jaialdiaren seigarren edizioa izanen da aurten ere.

Kirolak herri kirolean oinarritutako dantza garaikideko ikuskizun bat da. Hasieran kale ikuskizun labur bezala sortu zu-

ten Aldazek eta Helena Lizarik. "Jendearendako gaia errazagoa da. Ikusi genuen jendea interesatzen zitzaiola gaia eta saio luzeagoa eta antzokian egitekoa egin genezakeela pentsatu genuen". Aldaz eta Lizarirekin batera ere dantzari gehiagok parte hartzen dute Etxarri Aranatzan eskainiko duten "bertsio luzean".

"Bai Helena bai ni duela asko kanpora joan ginen eta beti duzu zure lurraldearekin harremana. Kanpoan egonda ohiko gauzak nabarmendu egiten dira: nola bururatzen zaio pertsona bati harri bat jasotzea?". "Horrelako gauzak" planteatzen hasi ziren, eta emaitza *Kirolak* ikuskizuna izan zen. "Kirolek eta dantzak badituzte amankomunean kontzeptu asko: erresistentzia, indarra, azkartasuna, ardatzetik kanpo egotea...". Herri kirolean, gainera, elementuak erabiltzen dituzte eta gorputz bat objektu horiek bihurtzean zer gertatzen den erakutsi nahi zuten ere. Ikuskizunaren gaia kontuan hartuta,

Kirolak emanaldiarekin batera Aizkora, antzinako bizimodu baten aztarna dokumentala eskainiko dute Etxarri Aranatzan.

Dantza eta ingurua

Azken urtetan dantza garaikidearen ezagutza hedatu den arren, "oraindik" ez dela guztiz ulertzen kontziente da Aldaz. Baina *Kirolak* ikuskizunak jorratzen duen gaigatik "Etxarri gustuko izango dutela" uste du artistak. "Azkenean, gure kulturaren inguruan osatu den saioa da, gure kulturaz hitz egiten du". Amankomuneko zerbait edo ezagutzen den zerbait ikusten denean "errazago" ulertzen da.

Espazio ez eszenikoetan sortzea gustatzen zaio Aldazi. Oholtzatik atera eta edozein toki agertoki edo dantzatoki bihurtzen ditu etxarriarrak. Horrela sortu zuen *Site sepcific. Ciudad en creación*. "Joan den urtean Iruñeko Kondestable jauregian egon ginen bi astez lanean eta emanaldi ibiltari bat sortu genuen. Guk sortutako dantza baten bidez

jauregia erakutsi genuen, jauregiaren estruktura kontuan hartuz".

Dantzas konpainiak Atalak proiektuan parte hartzera gonbidatu zuten, eta konpainia horrekin ere Los Arcosen antzeko performance egin zuten. Tabakalera, Miarritzen eta Gasteizen errepikatuz zuten esperientzia, baina toki bakoitzeko emanaldi bakoitza bakarra da. "Arkitektura erabilita dantza bat leku horretarako osatzen dugu; leku horrek ematen digun informazioa aztertuz". Egiten duten aldiro, beraz, performance desberdinak dira. Ekainean proiektu bera Faktoriako ikasleekin egingo dute.

Koreografia zentroa

La Faktoria Aldazen beste proiektu bat da: nazioarteko koreografia zentroa, Noainen kokatuta. "Bi urtez kobratu gabe lan egiten egon gara eta orain ikusi dute eta baloratu dute egin dugun lana". Aurrekoan Nafarroako Parlamentuko kideek zentroa bisitatu zuten eta bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten: "Oso pozik zeuden eta proiektua laguntzeko gogoia zuten". Aurten 21 ikasle ditu, baina zentroa mustu zutenetik 80 bat dantzari pasa dira. Dagoeneko hiru promozio trebatu dira La Faktorian: "Urtero nafar bat edo bi ditugu, eta horregatik nafarrendako matrikula merkeagoa jarri dugu". Hainbeste urte kanpoan egon ondoren nazioarteko zentroak ere "kulturen artean" egoteko aukera ematen dio.

Dantza garaikidea bultzatzeko "hemengo jendea" trebatu behar dela esan du Aldazek: "Kanpoan egoteak ere gauza asko erakutsi dizkit, baina hemen egoteko aukera ere egon behar du". Gero eta aukera gehiago egotea nahi du etxarriarrak, izan ere, Euskal Herrira itzultzeko "zerbait" izan behar zuen. "Nire ibilbide profesional gehiena kanpoan egin dut hemen ez zegoelako aukera handirik. Konturatu nintzen zerbaitekin itzultzen banintzen askoz hobe zela eta nik osatzen banituen proiektuak geroz eta aukera gehiago izango nituela bueltatzeko". Pixkanaka "gauza gehiago" egiten dira. "Batuetan ez da erraza, baina saiatzen ari dira". Kultura sustatzen den lekuetan giro berezia sortzen dela aipatu du artistak: "Gauza asko gertatzen eta sortzen dira". Bere natura horrelakoa da: "Jaialdi

bat, zentro koreografiko bat... bati nago sortzen".

Ikus-entzunezkoak

Sei urtez Zinetika mugimendua eta ikus-entzunezkoak uztartzen dituen jaialdia zuzendu du Aldazek. Iruñean hasi zen eta dagoeneko Bilbon, Donostian eta Iruñean egiten da jaialdia. "Oso pozik nago jaialdiarekin, baina esan behar dut oso lan handia eta zaila dela. Pila bat gustatzen zait eta talde oso ona dugu. Baina beti oso zaila da diru laguntzen kontua edo dirua lortzea". Jaialdian eskaintzen diren bideo emanaldiak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar gehienak doan dira edo salneurri baxua dute, eta horretarako beste finantziario mota bilatu behar du: "Hori da zailena". Aldaz artista eta dantzaria da, baita ekoizlea, komunikatzailea, irakaslea... "Oso polifazetikoak izan behar dugu".

Errutinak

Juan Ramon Karasatorre Aldazek egindako testu batean oinarrituta Laida Aldazek *The Room* film laburra sortu zuen. Luisillo Kalandraka musikari etxarriarrak film laburreko musika egin zuen ere. Lana zenbait bideo jaialditan egon da, iazko Zinetikan mustu ondoren. Pertsona bat gela batean itxita dago eta hor zenbait mugimendu agertzen dira, errutina islatzen dutenak. Errutina bat moztean, beste errutina bat sortzen da. Film laburra pandemia hasi aurretik grabatu zuten, eta konfinamenduan zehar editatu zuten. "la iragarlea izan zen".

Konfinamenduan La Faktoriako ikasleekin *Inside* filma egin zuten ere. Joko batean oinarritu zen: "Bi dado sortu nituen; batean etxeko tokiak zeuden eta bestean mugimendu kalitateak. Lekuen dardoa behin botatzen nuen eta mugimendu kalitatearena hiru aldiz". Dantzariak tokiatzen zitzaien lekuan hiru mugimendu horiekin koreografia bat prestatu behar zuten eta filmatu behar zuten. Ondoren, Aldazek eta bere taldeak edizioa egin zuten. Luisillo Kalandrakak ere proiektu honetan musika jarri zuen.

Toure detektibearen patua

Jon Arretxe Perez Arbizon bizi den idazleak 'Desconfía' azken liburua aurkeztu zuen asteazkenean Iortia kultur gunean. Paris "ilunenean" kokatzen den 'Mesfidatu hitzez' nobelaren gaztelaniazko bertsioa da

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Toure Jon Arretxe idazleak sortu zuen detektibe berezia. Burkina Fason jaioa, Bilboko San Francisco auzora joan zen. Auzo hori nobela beltzak kokatzeko ezin aproposagoa dela aitortu du Arretxek behin baino gehiagotan. Baina Toureren ibilbidea ez zen hor gelditu. Bilbon hainbat istorio bizi ondoren, polizia-iki ihesi Nafarroako Piriniooko herri txiki batera joan zen detektibe ospetsua. Ondoren, Parisera joan zen. Baina Senaren ertz ederrak eta Eiffel dorrea ikusten den Paris ospetsu horretara; ez. Toure Paris "beltzera" joan zen. Berriz ere, hiriarren ertzetara, auzo pobreetara. Argiaren hirian ere bizitza bilatu beharko du detektibeak.

Mesfidatu hitzez da Arretxek Parisen kokatu zuena eleberria. Oraingoan, gaztelaniazko bertsioa kaleratu du: *Desconfía*.



Jon Arretxe Perez 'Desconfía' liburuaren aurkezpenean.

Cristina Fernandez Blancok egin du itzulpena eta, ohi denez, Ereinek argitaratu du. Asteazkenean liburuaren aurkezpenean egin zuen Iortia kultur gunean Altsasuko Liburutegiaren, Arkatz liburu dendaren eta Haritza tabernaren eskutik. Touren istorioaren errepaso egin zuen, eta *Trumoiaren alaba* gazteendako liburua aurkeztu zuen ere.

Kritika soziala da nobela beltza poliziakotik alderatzen duen elementuetako bat. Poliziakoetan hilketa bat gertatzen da, eta protagonistek, poliziek, hiltzailea aurkitzeko ikerketa bat egin behar dute. Nobela beltzean, aldiz, protagonistak beste batzuk dira: hirietako bazterretan bizi direnak eta abar. Kritika sozial "gordina" egin behar dute nobela beltzek, Arretxeren ustetan. Toure detektibearen bizitzan zehar pasatzen duenarekin, kritika hori nabarmena da. Hortaz, irakurleak Tourerekin enpatizatzea lortu du Arretxek, nahiz eta "perfektua ez izan, inolaz ere". Nobela beltzek ere erritmo azkarra izaten dute.

Sanfrantetik Parisera

Touren istorioa Bilboko San Francisco auzoan hasi zen 19 kamera nobelan. Burkina Fasotik etorritako pertsona bat zen eta bertan aurrera egiteko edozer egiten du, eta egiten dituen gauzengatik polizia bere atzetik doa. Auzotik atera gabe, Arretxek 612 euro nobelarekin Toureren istorioa jarraitu zuen. Kritika soziala umorearen bidez egin zuen idazleak. Tourek aurreiritzi guztiak alde batera utzi behar izan ditu, eta edozein lan hartzen du aurrera egin ahal izateko. Kritika sozial handiena sagaren hirugarren liburuan egin zuen Arretxek: *Hutsaren itzalak*. Toureren egoera eta zirkunstantziak berdin jarraitzen dute.

Estolda jolasak liburuan Tourek hondoa jotzen du, eta deportatzen dute. Nobela honetan idazleak Afrikaren alde bat, ahaztuena, erakutsi zuen. Hurrengo nobelan, *Sator lokatzak* liburuan, aldiz, Toure San Franciscora, "ghettora", itzuliko da eta betiko lagunekin biltzen saiatuko da. Paperik gabekoen bizitza ongi islatzen du liburuak.

Nobela beltzetako beste ezagurrietako bat hiriak izan ohi dira. Hirietako bazterretan ger-

tatzen da akzioa, baina *Ez erran deus* liburuan Arretxek Toure Nafarroako Pirinioetako herri txiki batera eraman zuen. Normalean oso lasaiak izan ohi diren herriak. Ihes egiten iristen da Toure mendietako herrira. Azken nobela, *Mesfidatu hitzez* edo *Desconfía*, asteazkenean Altsasun aurkeztu zuena, Parisen kokatu du. Nobela guztiek gaztelaniazko bertsioa dute.

Haurrendako literatura

Altsasuko aurkezpenean Jon Arretxek *Trumoiaren Alaba* gazteendako liburua aurkeztu zuen. Nobela beltzaren artean badira *Lurraren Taupadak*, *Harresi Handirantz* eta *Beti Iparralderantz* Arretxek haurrendako eta gazteendako idatzitako liburuak ere.

Trumoiaren Alaba Sumatra uhartean kokatuta dago. Abentura nobela bat da eta Batari neskatok eta Kusuma bere neba txikiak hondamendi baten ondoren bizi duten ibilbide luzea erakusten du. Biek ustekabek eta magiaz beteriko mila abentura eta arrisku biziko dituzte eta bidean ere lagunak egingo dituzte. Besteak beste, naturaren suntsitzea, turismoaren eragina, erlijioen arteko lehiak, umeen trafikoa, mafien lana eta abar azaltzen dira.

Lanak

Touren saga

- *19 Kamera* (2012)
- *612 euro* (2013)
- *Hutsaren itzalak* (2014)
- *Estolda jolasak* (2016)
- *Sator lokatzak* (2017)
- *Ez erran deus* (2019)
- *Mesfidatu hitzez* (2020)

Haur eta gazte literatura

- *Beti iparralderantz* (2014)
- *Harresi handirantz* (2015)
- *Lurraren taupadak* (2018)
- *Trumoiaren alaba* (2020)

Eleberriak

- *Xahmaran* (2009)
- *7 kolore* (2010)
- *Tangerko ametsak* (2011)
- *Arrutiren banda* (2017)



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA

Guadalupeko super arrosa

Orain dela urte pare bat, marrazketa klasean, irakaslearekin hitz eta pitz genbiltzan. Hain zuzen ere komiki amerikarrei buruz. Superheroi komikiei buruz. Irakasle honek, solasaren erdian, halako batean zera esan zuen: "Komiki amerikarrak gustuko dituen pertsonak ez ditu komikiak gustuko, telenobela venezuelarrak baizik".

Nire lehenengo erantzuna barre algara izan zen. Hala ere, esaldi horrek urteak daramatza ene buruan bueltaka. Egia ote? Logikak

dio Peter Parker (Spiderman) eta Jimena Elizondo Acevedo de Reyes (Pasión de Gavilanes) pertsonaiak bata bestetik ezin urrunago daudela.

Atzera pauso bat ematen badugu beste perspektiba bat zabaltzen zaigu begien aurrean: Aztertzen ari garen komiki eta telesail hauen tramek drama hutsean daukate funtsa! Pertsonaia lau eta arketipikoak dituzte protagonistatzat eta beraien artean haserre edo borrokan daude beti. Denak sekulako epikoa behar du izan. Eta kapituluro amaiera ikusgarria, hurrengo aстера arte zirrarar utziko zaituena!

Ene ustez, komiki eta telesail hauek daukaten produkzio motak hemen asko du zerikusteko. Ahalik eta azkarren egiten dira, entrega data murriztuekin lan egiten baitute. Telesail venezuelarrak

estudio txikietan grabatzen dira, kapituluro 5 eskenatoki ezberdin besterik ez daude, eta ia beti etxeren baten barruan. Komiki amerikarrek muntai kate baten antzean funtzionatzen dute: batek gidioia idazten du, beste batek arkatza, besteak tinta, koloreak, errotulazioa... Azkenean xehetasunak eta mimoa nahitaez galdu egiten dira bi kasuetan. Gainera audientziaren oso menpeko dira. Jendeak ez badu gustuko, akabo.

Baina beno, azken finean bakoitzak nahi duena irakur dezala. Superheroi komikietan denetatik dago. Badira maisulan interesgarriak, baina badira kaka mordoa baita ere. Nik, pertsonalki, ez dut inoiz ahaztuko komiki amerikarrak eta telenobela venezuelarrak asko dutela pareko.

Erkuden Ruiz Barroso ETXARREN

Antzerkia Laura Penagos lan-bidea eta "pasioa" da. Duela hamabi urte Kolonbiatik Iruñera etorri zen, eta handik Etxarrenera. Hasieratik "oso argi" izan zuen euskara ikasi nahi zuela. Egune-ro ikasketa bat da. Artedrama eta Huts teatroa konpainiekin batera *Atzerria lurra garratz* antzezlan sortu eta antzezten ari da. Euskaraz lan egitea "erronka handi" bat izan arren, berarendako "luxu" bat da. Penagosek azaldu duenez, "zorionez" Artedramak euskara bultzatzen du eta "ederra" da.

'Atzerrian lurra garrantz' antzezlan sortu duzue. Nolako izan da prozesua?

Orain dela bi urte Nafarroako Antzerki Eskolan Ander Lipus ezagutu nuen ikastaro batean. Garai horretan hainbat galdera nituen buruan, eta berarekin hitz egin nuen pixka bat kontatzeko zer gustatuko litzaidakeen egitea. Berari ideia oso interesgarria iruditu zitzaion. Gero Amancay Gaztañaga ezagutu nuen. Bera zuzendaria da.

Zeintzuk ziren galdera horiek?

Adibidez, noiz arte migratzaile, zer da hemengo izatea, zer da kanpoko izatea, nola hitz egin norberaren inguruan, nola hitz egin besteei buruz... Niretzat oraindik ere oso garrantzitsuak dira galdera hauek. Azkenean, beti ditut buruan.

Antzezlan sortzeko, zure esperientzian oinarritu zinen?

Zalantzarik gabe prozesua edo antzezlan hasteko nire bizipenak erabili genituen. Baina, gero, prozesuan inprobisazioaren bidez testua fikzionatu genuen eta, alde batetik, nire bizipenak eta hausnarketak edo galderak dira, baina, beste aldetik, fikzioa da. Pertsonaia, esaterako, Aurora Mora da. Bera artista plastikoa da eta lau urte daramatza Euskal Herrian. Aurorak gatazka handia du buruan eta bihotzean, eta antzezlanean zehar ikusten da.

Nola izan da pertsonaia horretan sartzea?

Hasieran oso zaila. Oso antzekoa delako nire bizitza eta Auroraren bizitza. Baina antzezle profesionala naiz, eta berehala konturatu nintzen zer egin behar nuen eta pixkanaka Auroraren pertsonaia sortu nuen. Bi urteko prozesua izan da, eta Amancay berak esaten zidan: "Zuk badakizu pertsonaia dela, ez da zure bizitza, zu ez zara Aurora Mora. Mugatu behar duzu". Arrazoia zuen. Pro-

"Antzerkia hausnartzeko ere bada"

LAURA PENAGOS RODRIGUEZ AKTOREA

Etxarrearen bizi den antzezlea 'Atzerrian lurra garratz' lanarekin bira egiten ari da. Esperientzia pertsonaletik abiatuta sortu zuten antzezlan



Laura Penagos Rodriguez aktorea. UTZITAKOIA

zesuan geruza askoren artean ibili ginen, eta zentzu horretan oso ederra da. Ander Lipus eta biok oholza gainean gaude, baina kanpoan dauden guztiek ere sortu dute antzezlan.

Esan bezala, prozesu bat izan da. Zalantzarik gabe. Ekoizpen lana oso garrantzitsua da. Aurre ekoiz-

penetik oholza gainean egotera-ko prozesua oso garrantzitsua izan da. Antzezlan ez da bakarrik Ander Lipusek eta biok oholtzaren gainean egiten duguna. Antzezlana den-dena da. Amancay Gaztañaga zuzendaria, Iasone Paradaren ekoizpena, Arantza Floresen argiztapena, Barbara Rassoren

jantziak, Ibon Rg-ren musika eta abar. Ekoizpen oso handia da. Eta hau da antzerkia. Atzean unibertso oso bat dago. Hori oso garrantzitsua da niretzat. Artedrama adituak dira, eta lan ederra egiten dute. Eskerrak ematen dizkiet.

Antzezlana helbururen bat du? Zer planteatzen du?

Antzezlana ardatz desberdinak ditu: zaintza, migrazioa, kolonialismoa, emakumea eta nortasuna. Gutxi gora behera honi buruz hitz egiten dugu. Oso garrantzitsua da hausnarketa egitea. Antzerkia ongi pasatzeko da, zalantzarik gabe, baita hausnartzeko ere. Zenbait galdera egitea planteatzen du: zer da zaintza, zertarako, zergatik guri emakumeoi tokatzen zaigu zaintza lanak egitea, zeintzuk dira Auroraren ezaugarri fisikoak, zer den emakume beltza edo indigena izatea, zein da bere lekua Euskal Herrian eta zein zen bere lekua Kolonbian... Nola nortasun horrek bere bizitza bideratu duen eta nola bideratzen duen gaur egun azaleratzen du.

Noiz erabaki zenuen antzezlea izatea?

Lau urterekin, gutxi gora behera, amari esan nion antzerkia egin nahi nuela. Amaren erantzuna ez zen hain polita izan eta ideia hori utzi nuen. Hamabost urterekin gure herrian ikastaro bat egin nuen eta batxilergoa bukatzen ari nintzanean aitak galdetu zidan ea zer egin nahi nuen unibertsitatean. Nik esan nion psikologia, kazetaritza edo horrelako zerbaitegino nuela. Orduan, berak esan zidan ezetz, nik antzerkia ikasi behar nuela. Zur eta lur gelditu nintzen: aitak nire barruan zerbaitegino izusi zuen. Berehala onartu nuen.

Teatro libre lau urteko gradua egin nuen Bogotan eta gradu hori amaitu ondoren bi urtez profesionalki aritu nintzen. 2008an hona iritsi nintzen.

Eta hemen zein ibilbide izan duzu?

Zoritzarrez bai hemen bai leku guztietan antzerkia egitea zaila da. Sistema honetan kultura bultzatzea ez da lehentasuna. Merkatuak eta gauza produktiboek dute garrantzia. Orduan, ailegatu nintzanean oso zaila izan zen. Nafarroako Antzerki Eskolan bi urte egin nituen, baina gero berdina izan zen. Egun batean nire buruari esan nion garaia zela eta zerbaite egin behar nuela. Bestela, zertarako orain arte egindako guztia? Antzerkia nire grina, bultzada eta aterpea da. Antzerkia maite dut. Bartzelonara joan nintzen ikastera eta gero Italiara. Italian, ikastaro batean, dramaturgia bat egin nuen eta testi horrekin Nafarroako Antzerki Eskolan erresidentzia artistikoa eman zidaten. *La pasión de Eva* antzezlan sortu nuen. Emanaldia bukatu eta gero Ander Lipus ezagutu nuen. Orain, poz-pez nabil bira handia egiten ari garelako, eta jarraitzea espero dut.

Zure talentua erakutsi duzu.

Bai. Azkenean, hauek dira gure baldintzak emakume bezala. Kristoren lana egin behar dugu leku guztietan, edozein bidetan eta lanbidetan. Guk borrokatu behar dugu edo beti zerbaite gehiago egin behar dugu, maila berdinean jartzeko. Sozialki exijentzia handia da.

Sakanan ikusteko aukera egongo da?

Oraindik ez. Gustatuko litzaidake lana hemen egitea. Sakanan migrazio maila asko daude, eta ez da bakarrik migrazioagatik; antzerkia ongi dago hausnarketa egiteko, eta, gainera, euskaraz, ederra izango litzateke. Irurtzungo kultur etxean egonaldi bat edo erresidentzia artistiko bat egin genuen prozesuaren hasieran. Gustatuko litzaidake leku horretan egin ahal izatea. Momentuz, Iruñean maiatzaren 5ean egongo gara.

Aktore bat Etxarrean.

Oso gustura bizi naiz hemen. Iruñea utzi nuenean zalantzak izan nituen, baina berehala jakin nuen hemen bizi nahi nuela. Zintzotasunez, asko gustatzen zait hemen bizitzea. Sakana oso leku berezia da. Kristoren energia du, eta jendea oso jatorra dela iruditzen zait. Gainera, isiltasuna asko gustatzen zait eta herriak isiltasuna ematen dit.

"Gure arazorik handiena kopurua da"

Laster udaberriko oporrak izanen dira. Urte oso zaila izan da turismo arloko langileendako. Alfonso Nuin Cartujo Hiriberri Arakilgo Casa Martinberrikako jabea da, eta Bidelagun turismo elkarteko presidentea

Erkuden Ruiz Barroso HIRIBERRI A.

1 Zein egoeratan zaudete?

Landa etxea irekita dugu, baina neurriak direla eta jendea ez dator. Iaz oso txarra izan zen ere, noski. Baina aurten ia okerrago.

2 Pertsona kopurua da zuen arazorik handiena?

Etxean hamabi pertsona sartzen dira, eta indarrean dauden neurriekin gaur egun ezin dira egon. Etxea irekita dago, baina etxe txiki asko daude eta hona sei pertsona etortzeko garestia egiten zaie. Nahiz eta hainbeste ez izan. Arakilgo Udalaren bidez deskontu bat egin dezakegu. Gure egoera ezagutu nahi izan zuten eta laguntzeko deskontu hori atera zuten.

3 Zer nolako jendea etortzen da? Nondik datoz?

Normalean familiak eta lagun kuadrillak izaten dira: bikoteak seme-alabekin; aiton-amonak, seme-alaba eta bilobekin... Asteburuetan inguruko herrialdekoak: Gipuzkoa, Bizkaitik jende asko etorri da eta Nafarroatik. Udan Mediterraneo aldetik, Kataluniatik, Madrildik, Andal-



Alfonso Nuin Cartujo Hiriberri Arakilgo Casa Martinberrikako jabea.

ziatik... Gutxienez aste bat pasatzera etortzen dira.

4 Beraz, herrialdearen itxierak ere eragiten dizue.

Arazo handiena kopurua da. Ez dakit besteak nola ari diren lan egiten, baina gure arazoa kopurua da. Bestela, Nafarroatik talderen bat etorriko litzateke. Hamar pertsona elkartzeko au-

kerak balitz, errazago izango litzateke. Herrialdea itxita egoteak ere eragiten digu inguruko jende asko etortzen delako. Dena da. Egun batetik bestera neurriak aldatzen dituzte, eta jendeak zerbait hartzeko beldurra du.

5 Nola datoz udaberriko oporrak?

Bada kasualitatez erreserba bat dut. Sei pertsona etorriko

dira. Normalean web orritik hartzen dituzte erreserbak, askotan nirekin hitz egin gabe, eta ez dakit nongoak diren ere. Gainera, beste talde batek deitu zidan egun berean. Urte normal batean opor horiek daude hartuta ez dakit zenbat hilabete aurretik. Baina aurten... Asteburu ia guztiak ere beteta izan ohi ditut urtean zehar. Orain ez dago dei bakar bat ere. Udan seguruenik neurriak aldatzen badituzte beteta egongo da.

6 Zer bilatzen du jendeak?

Hona etortzen direnak etxean egon. Lasaitasuna. Elkartzeko leku bat nahi dute, elkarrekin asteburu bat pasatzeko toki bat. Talde handiak izan ohi dira, eta hori nahi dute.

7 Nola aldatu da zure lana?

Nafarroako Gobernutik dena ongi garbitzeko produktu zerrenda luze bat bidali zigun eta hori erabiltzen dut.

8 Uda ona izan zen, beraz. Aurtengoa horrela aurreikusten duzue?

Ekainean hasi ginen eta irailera arte lanean egon ginen. Urriari neurriak aldatu zituzten eta berriz dena pikutara joan zen. Nire ustez, gaizki egiten ari gara. Bi hilabetez lan egin eta hiru itxi. Ez itxita, baina itxita egongo balitz bezala. Abenduan berriz pixka bat lan egin genuen, eta ondoren berriz lau hilabete daramatzagu lan egin gabe.

9 Hobe dena itxi aurrerago ireki ahal izateko?

Nire kasuan, bai. Argi daukat. Iaz udan oso ongi egin genuen

lan. Baina gero zer etorri da? Irailetik lan egin gabe ia. Ez dakit zer gertatuko den, eta hori da okerrera. Ez dakigula noiz arte egongo garen horrela. Udazkenean ondo eta normal lan egin genezakeela jakingo banu, udazkenean arte utziko nuke ezer egin gabe. Nik, bai. Ez ibiltzea orain oporrak bai, baina gero dena itxi behar izatea. Udazkenean jende askok txertoa jasoko duenez pixkanaka errazagoa izango dela pentsatu nahi dut.

10 Dirulaguntzak jaso dituzue?

Ni haserre nongoen ez dugulako ezer izan. Orain berririk atera dira eta gutxienez bertan gu sartuta gaude. Laguntza bada. Baina ez nuen itzaropenik. Azkenean zerbait lortu dugu. Zure lan bakarra edo lehenengoa izan behar du. Gutxi gaude honetaz lan egiten dugunok Sakanan. Hau nire lana da. Duela 12 urte ireki nuen. Profesionalizatu naiz eta ikastaro asko egin ditut. Leku guztietan sartuta nago: Bidelagun elkarteko lehendakaria naiz, Plazaolan nago...

11 Zer eskaintzen du Sakanak?

Sakana niretzat... Turismoaren egoera Garapen Agentziarekin aldatu zen. Aurretik hemen ez zegoen ezer. Hasieran Iker Manterolak egiten zituen lan guztiak eta gero teknikari bat etorri zen. Teknikaria izatea aldaketa izugarria izan zen. Proiektu oso politak daude: Santiago bidea, Bernoako galtzada, GR-ak, Zamartze, ibilbideak, bisitak egiteko Forjas Brun eta Albi gaztak...

ERAMAN ZURE PRODUKTUAK EDONORA

GUK BEHARREZKO DUZUN GUZTIA PRESTATUKO DIZUGU

EDALONTZIAK, POLTSAK, ONTZIAK, KUTXAK...



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

619 821 436 · 948 564 275 · Info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu

